

ORIO TARRAK
KANTU
KANTARI



kantu bilduma



ORIO TARRAK
KANTU 3
KANTARI



Euskal musika, atera hadi plazara!

*E*uskara, jalgi hadi plazara! esan zuen Etxepare idazleak euskaraz argitaratutako aurreneko liburuan. *Euskal musika, atera hadi plazara!* esan nahi dugu Orioko gure txokotik, euskal kantuen liburuxka xume honen bitartez. Atera hadi plazara eta bete eta alaitu itzak herriko txoko guztiak hire doinuekin.

Plazaratu berri den euskal disko baten aurkezpena egiteko, Saramago idazle portugaldarrak egin duen idatzi batean dioenez, munduaren historian giza ahotsa izan zen musikarik zaharrena eta, gizakia ahotsa erabiliz abestera altxatu zenekoa, gizateriaren historiako unerik gogoangarrienetako bat. Geroxeago, Euskal Herriaz ari zela, berriz, honelaxe hasi zen: bada herri musikari bat... Gutaz ari zen, euskaldunon gainean. Eta egia da, euskaldunok horren fama izan dugu beti, Pirinioen oinean dantzan eta kantuan bizi den herri baten moduan ikusi gintuen Voltaire pentsalari frantziar famatuak. Azken aspaldiko urteotan, hala ere, kantatzeko zaletasun hori ederki apalduta dabil: leku guztietan musika jarrita egotea, mp3ak, taberna batzuetan kantatzea debekatzeko propio jarritako kartelak..., gauza asko dira gure bizimoduan kantuan jardutea galarazten dutenak eta kalean kantatzeko ohitura galtzen hasita dago gure artean, kantarako joera asko jaitsi da eta jendeari kantuen doinuak eta hitzak ahazten ari zaizkio.

Hala ere, horrekin batera, badira bestelako joera baten lehenengo zantzuak ere, badira kantuzaleok pozteko arrazoiak ere: herriko otxoteak, Egunsentik, disko bat grabatu du aurten Orion, betidanik kalean abestu diren kantuek jaso



eta zabaltzeko asmoarekin; Benitok kantu eder bat eskaini digu herritarroi, arraunlariei alironeko ongi etorria egiten diogunean, denok batera Mirotzak kantu ederra abestu dezagun; otxoteaz gain, Salatxo abesbatzak, elizako koruak eta Ikastolako Olaxka kantari gaztetxoek taldeak, bakoitzak bere esparruan, ale ederra jartzen dute herria musikaz blaitzeko bidean; apaiz musikazale eta kantari ona daukagu, Bikamiyota inguruko udal lokaletan talde eta kantari asko dira musika egiten dutenak; musika-eskolan, hainbat instrumentu jotzen erakutsi eta gaztetxoak solfeoaren pentagrametan abiatzeaz gain, kantu hutsean ere bideratzen dituzte herritar batzuk; Errikotxiako bertsozaleek ere gero eta sariago plazaratzen dute bertso kantatua...

Orain, Udalak ere aletxo bat jarri nahi izan du bide horretan eta kantu-liburuxka hau berrargitaratzea erabaki du; horretarako, aurreko kantu bilduma gaurkotu eta osatu egin du: kantu gehiago sartu dira eta egile izenak ere jarrita agertzen dira orain. Sorta ederra gelditu da, kantatu nahi duten guztien lagungarri izateko.

Jaso liburuxka hau etxean eta erabili: kantatu eta bazterrak alaitu. Badugu-eta horren premia. Kantatzen dakien herria ez omen da inoiz hilko. Liburuxkak balio beza Oriko kantuzale fama izaten segitu dezan. Josepa Treku, Celestino Agirresarobe, Antxiola, Santiago Azurza, Joakin Aldabe, Felipe Arostegi, Alberto Oliden, Juan Jose Iruetagoiena, Don Antonino Agirre eta gure artean joan zaizkigun beste kantuzale guztiek ere pozik, oso pozik, hartuko zuten eskuan liburuxka hau. Ea zuek ere gustukoa duzuen!

lñaki Iturain
ORIOKO UDALEKO EUSKARA BATZORDEA

Aurkibidea

Aldio laguna.....	8	Dama eder bati.....	28
Agur Jaunak.....	8	Domingo Kanpaina.....	28
Agur Xiberua.....	9	Donostiako hiru damatxo.....	29
Agure zaharra.....	10	Egun da Santi Mamiña.....	29
Ai, hau edari zoragarria.....	11	Egungenti.....	30
Aita-semeak.....	12	Egungentia.....	30
Aitormena.....	12	Ene maitea nauzu.....	31
Aitorren hizkuntz zaharra.....	13	Eperrak badiitzi.....	31
Aldapeko.....	13	Eperraren kanta.....	32
Aliron.....	13	Erreguetan.....	33
Arna, begira zazu.....	14	Esku ezkerria.....	34
Amerikara noa.....	14	Euskadin, Castillan bezala.....	35
Ameriketara joan nintzan.....	15	Euskal Herrian euskaraz.....	36
Amets.....	15	Euskaldun berriaren balada.....	37
Andre Madalen.....	15	Euskaraz Gazte.....	38
Androkanto.....	16	Eusko gudariak.....	38
Antton bat eta Antton bi.....	16	Ez dizut irikiko.....	39
Anttoni eta Antton.....	17	Ez, ez dut nahi.....	39
Ardoa edanda.....	17	Ez nau izutzen negu hurbilak.....	40
Arrantza.....	17	Ezkongaietan.....	41
Artillero.....	18	Furra furra.....	42
Atharratzeko gaztelua.....	18	Galerianoaren kantua.....	43
Athletic.....	19	Gazte naiz eta lorios.....	43
Atia kax-kax.....	19	Gazte-gaztetatikan.....	44
Aupa gizona.....	19	Gaztelugatxe.....	44
Azken dantza hau.....	20	Gernikako arbola.....	45
Bagare.....	20	Gitarra zahartxo bat.....	45
Baituk eta.....	20	Goiko Kaleko.....	46
Baldorba.....	21	Goizeko euri artean.....	46
Balearen bertsoak.....	22	Goizian argi hastian.....	47
Baratzeko pikua.....	23	Gora ta gora beti.....	47
Baserritarrak.....	23	Gure kuadrillan.....	48
Begiak parrez-parrez.....	23	Habanera.....	48
Behin batian Loiolan.....	24	Haizea dator ifarraldetik.....	49
Bertso berriak.....	25	Hara nun diran.....	49
Bizkaia maite.....	26	Hau da egun ederra.....	50
Bizkaiko aberatsak.....	27		
Boga, boga.....	27		



Haurtxo txikia	50	Maitiak galdegin zautan	74
Hegoak ebaki banizkio	51	Maritxu, nora zoaz?	74
Herribehera	51	Markesaren alaba	75
Herriko festak	52	Matalaz	75
Hutsa	53	Mendian gora	76
		Mirotzak	76
Ia guriak egin du	53	Nere andrea	77
Iduzki denian	54	Nere herriko neskatxa maite	77
Ikusi mendizaleak	54	Ni naiz	77
Ikusten duzu goizean	55	Nigarra begian	78
Ilunabarra	55	Nirekin	78
Ilun-ikarak	56	Oi ama Eskual Herri	79
Iparragirre abila dela	56	Oraindaineiko inularretan	79
Isil-isilik dago	57	Oria ibaia	80
Itsasoa laino dago	57	Orioko zuluau	80
Itsasoari begira	58	Ostatuko neskatxaren koblak	81
Itsasontzi baten	59	Pasaiako herritik	82
Itziarren semea	60	Pello Josepe	82
Izarren hautsa	61	Prima eijerra	82
		Salamankara	83
Jaun barua	62	San Simon eta San Juda	83
Joxe Mielen batela	62	Sehaska kanta	84
		Sorterriko koblak	84
Kalera, kalera	63	Tarrabillon	85
Kalera noa ihesi	63	Tiriki trauki	86
Kantari nator	64	Triste bizi naiz eta	86
Kantuz	64	Txakurraren partia	87
Kapitain Pilotu	65	Txantxibiri	87
Kontrapas	65	Txukurrun	88
		Txuri-urdin	88
Lasarte, omenaldi egunean ..	66	Ume eder bat	88
Lau teilatu	67	Xalbadarren heriotzean	89
Laztana	67	Zazpi laguntxo gera	89
Lehen, orai eta beti	68	Zenbait bertso celebre	90
Lepoan hartu	68	Zenbat gera	91
Lizargate	69	Zibilek esan naute	91
Loa, loa	70	Zuk zer dezu, Arantzazu?	92
Loretxo	70	Zure begiek	92
Loriak udan ihintza bezela ..	71		
Maddalen	72		
Maitasuna	72		
Maite, maite	73		
Maitia	73		
Maitia, non zira?	73		

Gabon kantar

Abenduko hilaren	94	Hiru errege	102
Ai, hau gauaren zoragarria! ..	94	Horra, Mari Domingi	102
Alaken, alaken	94	Isilik iso	102
Arin-arin, kristauak	95	Joxe, ekarri zazu	102
Artzaiak datoz	95	Kanpaiak jaietan	103
Atozte kristauak	95	Kanta aleluia	103
Aupa goazen	96	Kukurruku	103
Bihotz sutuakin	96	Mendi aldetik datoz	104
Birjina maite	97	Mesias sarritan	104
Bizarzuri	97		
Din dan don	98	Oi, Bethleem	105
Dios te salve	99	Olentzero	105
Elurra teilatuan	99	Olentzero	105
Erregeak datoz	100	Poztu gaitezen	105
Gabon gaua	100	Txamarra txartxo	106
Gaueko izar	100	Zer zorian ta alaitasun	106
Gora, gora	101		
Hator, hator	101		
Haurtxo maite	101		






**ADIO LAGUNA***Gozategi*

Adio laguna,
aski ezaguna,
nork bete behar du zuk utzi
diguzun hutsuna?

Inoiz ez naiz damu izango
laguna izana,
gogoan daukat irakatsi
izan zenidana.

Jatorrean jator,
ez zen beste inor,
garen artean sendo dirau
gurekin iraukor.

Bizi indarra daukat, gartsu,
zenaren gorantzan,
berriro elkar ikusiko
dugun esperantzan.

**AGUR JAUNAK***Herri kanta*

Agur Jaunak,
t'andereak; agur t'ardi.
Danak Jainkoak eñak gire,
zuek eta bai gu ere.
Agur danak, agur
Agur t'ardi, hemen gera.

AGUR XIBERUA*Herri kanta*

Agur Xiberua,
bazter güzietako xokhorik eijjerrena!
Agur sor lekhia,
zuri ditit ene ametsik goxuenak.
Bihotzaren erditik
bostetan elki deitadazüt hasperena;
zü ützi geroztik
bizi niz trixterik,
abandonatürük,
ez beita herririk,
Paris ez besterik,
zü bezalakorik.

Sor lekhia ützirik gazte nintzalarik,
Parisen sarthü nintzan korajez betherik.
Plazerez gose eta bürian hartürük
behar niala alegera bizi...
Bostetan geroztik,
nigar egiten dit,
Xiberua zuri.

Agur Xiberua (...)

Palazio ederretan gira alojatzan,
eta segür goratik aide freska hartzen;
Gain behera soginik beitzait üdüritzen
Orhigañen nizala agitzen...
Bena ez dira heben
bazterrak berdatzen,
txoriak kanthatzen!

Agur Xiberua (...)

Ametsa, lagün nezak ni Atharratzerat,
ene azken egünen han iragaitera,
Orhiko txoriaren khantüz behatzera,
pharka ditzan nik egin nigarrak.
Hots, xiberutarrak,
aintzinian gora
eskualdün bandera.

Agur Xiberua (...)





AGURE ZAHARRA

Jatorrizkoa: Lluís Llach

Euskaraz: Xabier Lete / Gorka Knor

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean
goizean goiz lantokira irteten nintzanean:
Ez al dek, gazte, ikusten gure etxola zein dan?
desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,
usteltzen hasita dago-ta, laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan,
ikusiko dek nola-nola laister eroriko dan.

Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,
eskuak zartatu zaizkit, eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin:

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera (...)

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik,
haize txar batek hartu ta eraman du hemendik.
Haur batzuk ikusten ditut eta inguratirik,
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi:

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera (...)

AI, HAU EDARI ZORAGARRIA


Herri kanta

Bost baso ardo atera eta
bost tragotan hustu,
beste bat edateko
inon beharrik ez dut;
edan korriente baino
pagatzia ahaztu,
hola tabernaria
nekez aberastu.

Goizean sartu tabernara eta
ateratzen naiz azkena.
Egun guztian zurrutian ta
ez zait betetzen barrena.
Ai, hau edari zoragarria
neri gustatzen zaitena!
Maria Jesus, bihotzekua,
bete hamaseigarrena.

Ipurtzuloa itxita
hamar egunean,
zezenak izan ziran
askatu zanian.
Salto eta brinkoka
ohiaren gainian,
ikusi zutelako
kaka orinalian.

Goizean sartu tabernara eta (...)



**AITA-SEMEAK***Hitzak: M. Zarate • Doinua: Natxo de Felipe / Oskorri*

Aita-semeak tabernan daude,
ama-alabak jokoan. (Bis)

Berriz ikusi beharko dugu
behi gizena auzoan,
berriro ere ez da faltako
trapu zaharrak kakoan.

Aita-semeak tabernan daude...

Eta lapurrek ostu dute
guk gendukana etxean,
eta gu gaude erdi biluzik
beti iñoren menpean.

Aita-semeak tabernan daude...

Geurea dugu erru guztia,
geurea dugu osoan,
ez iñori, ba, errua bota
Euskal Herria hiltzean.

Aita-semeak tabernan daude...

Baina gaztea naiz eta daukat
etorkizuna eskuan,
ez zaigu hilko Euskal Herria
ni bizi naizen artean.


Aita-semeak tabernan daude...

AITORMENA*Hertzainak*

Ez dira betiko garai onenak,
azken finean gizaki hutsak gara,
barearen ostan dator ekaitza,
udaberri berririk ez guretzat.
Denborak aurrera etengabian,
ta orain ezin eutsi izan giñana,
rutinaren morroiak bihurtu gara,
laztana, lehen baino lehen aska gaitzean.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta,
ohartu gabe heldu gara mugara,
mundua jausi zaigu gainera,
maitia, lehen baino lehen aska gaitzean.
Ez dakigu non dagoen hoberena,
bila dezagun beste lekuetan.

Bai, zin dagizut, ez dizudala inoiz gezurrik esan eta,
zaude ziur, ezin izango zaitudala ahaztu inoiz;
aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena,
baina orain, maitia, lehen baino lehen aska gaitzean.

**AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA***Herri kanta / Urretxindorrek*

Aitorren hizkuntz zaharra
nahi degu zabaldu,
munduaren aurrean
gizonki azaldu;
baldin gure zainetan
odolik badegu,
euskaldunak euskeraz
hitz egin behar degu.

Zein hizkuntza ederra,
eusquera gurial!
inon ez det aurkitzen
beste bat hobia.
Usain goxodun hizkuntz
txukun ta argia,
biraorikan ez duen
hizketa garbia.

Gora euskera maitea
zoragarriena,
euskaldunen artean,
maitagarriena.
Munduan sortu zanik
hizkuntzik zaharrena,
gora ta gora euskaldunak
eta gure euskera.

ALDAPEKO*Herri kanta*

Aldapeko sagarraren adarraren puntan,
puntaren puntan,
txoria zegoen kantari.
Xiru liru li.
Xiru liru li.
Nork dantzatuko ote du soinutxo hori?

**ALIRON***Herri kanta**Jatorrizko hitzak: Marin
Euskarazko hitzak: Iturain*

Airon, airon,
bandera da Orion.

Ez dago oriotarrik
kanta hau ez dakinik,
ez dago mundun herririk
bandera gehio dunik.

Airon, airon,
bandera da Orion.



**AMA, BEGIRA ZAZU***Herri kanta*

Ama begira zazu
leihotik plazara:
ni bezalakorikan
plazan bai ote da?
La, la, la, lai
plazan bai ote da?

Begiak erne ditut,
bi zangoak arin:
hoinbertze dohainekin
ez nauke mutxurdin.
La, la, la, lai
ez nauke mutxurdin.

Mutikoen artean
itzul-inguruka,
gizongeitza baduzket
dotzenan hameka.
La, la, la, lai
dotzenan hameka.

AMERIKARA NOA*Herri kanta**Doinua: Benito Lertxundi*

Amerikara noa nere borondatez,
hemen baino hobeto izateko ustez;
aspertua bainago hemengo izatez,
adios aita eta ama, ondo bizi bitez.

Lehenago ere seme bat badit Amerikan,
orain dela sei urte joana hemendikan,
baldin topatzen badek haren biderikan,
esan hakiok aita bizi dala oraindikan.

Kafia hartutzen det egunian bi aldiz,
baita pasiatu ere nik nahi haina zaldiz;
jan-edanaren faltik ez, osasuna berriz...
Aita, bizimodu hau Donostian izan balitz!

Heldu den primaderan
arropa xuritan,
ederra izanen naiz
mahain sainduetan
La, la, la, lai
mahain sainduetan.

Haurra, ahal badaide,
hala izan bedi:
lehen gure aldi zen
La, la, la, lai
orain zuen aldi.

**AMERIKETARA
JOAN NINTZAN***Herri kanta*

Ameriketara joan nintzan
xentimorik gabe,
handik etorri nintzan, maitia,
bost miloiren jabe.
Txin, txin, txin, txin,
diruaren hotsa,
harexek ematen dit, maitia,
bihotzian poza.

**ANDRE MADALEN***Herri kanta*


Andre Madalen, Andre Madalen,
laurden erdi bat olio!
Aitak saria ekarritzean
amak ordainduko dio.

Amak ordaintzen ez baldin baio,
aitak ordainduko dio.
Aitak ordaintzen ez baldin baio,
hor konpon eta adio!

AMETS*Herri kanta / Argoitia anai-arrebak*

Amets, amets egin
itsas gizona,
amets, zure ametsa
gerta leikena.

Berriz etorriko zera
Ondarruko kaiera,
han daukazu maitea
itxaroten dezuna,
berriz etorriko zera
zure txaluparekin,
han daukazu maitea
ta bihotza (Bis)



**ANDROKANTO***Hitzak: Luis Romero • Doinua: Oskarbi*

Entzun nahi duentzatz
hamalau Gorkaren
Gorkaren irudiak salatzen.
Hamalau atetikán karrasi,
hamalau harri ixilik bilutsik.
Harriaren hutsetik oihuka,
harriaren tartetik kantari,
nora zoazte gogorrak
oharrak aitu gabe?

Orain bertan bota det
altzairuzko zintzela
kanta zaharren artean.
Hau gure herri maitea,
hau gure herri torpea
bar-barren daukaguna,
hemen geldituko naiz
aldi luze ilun hontan.

Noiz arte, noiz arte
noiz arte lozorroan,
noiz arte iji-ajan?
Nortasuna galduta
ez dugu behin ere ikasten
arima malda beheran
arima behin galduta
nor gera euskaldunak?

ANTTON BAT ETA ANTTON BI*Herri kanta
Orioko haurrak / Orio Kantari*

Antton bat eta Antton bi
Antton putzura erori,
edan zituen pitxar bi,
etzan orduan egarri.

Bonbolon bat eta bonbolon bi,
eragiok Santi arraun horri (Bis).

Burni harri herria
Aloñako irudia
biltzar baten josiak (Bis)
Galtzen badugu euskara
ama goi mendikoa
galdu dugu estiloa.
Noiz arte dago Jonas
balearen sabelan?

Harri kanta ixilean
goien dira oihuka
hamalau igarleak (Bis)
Androkanto sigo kantan
balet baten kantata
hiltzetaren egun bat
balet bat dantzatzeko
hamalau atetikán.

Hartu behar dut zintzela
kanta zaharren baimena
noiz arte ez dakiat (Bis)
Hau nire herri maitea
hau nire herri torpea.
Gaur ez da igandea
ez da ere osteguna
udaberri atsaldean.

**ANTTONI ETA ANTTON***Herri kanta*

Anttoni, Anttoni!
zure atean nago ni.
Ai, Antton, ai, Antton!
ate ondoan hor konpon!

Hormatxoriak negu gorrian
ez du atsegin elurra;
zerua goibel, kabia hotza,
ta janari gabe lurra.
Ai, maite, nere bihotzak duan
zure hotzaren bildurra!
Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

Anttoni, Anttoni! (...)

Enarak ez du behin egindako
kaborik inoiz aldatzen;
urtero beti kabi haretan
umeak ditu bazkatzen.
Baina zu, Anton, enara txarra
zaitut neretzat bilatzen;
jai bakoitzean neska berria
ikusten zaitut maitatzen.

Anttoni, Anttoni! (...)

ARDOA EDANDA*Herri kanta*

Ardoa edanda mozkortzen naiz,
pipa erreta txoratzen naiz,
kortejatzen lotsatzen naiz,
nola demontre biziko naiz?

ARRANTZA*Hitzak: Fabian Loidi
Doinua: Imanol Urkizu*

Itsasoa da beti
lurrari musuka,
ta lurra ogi eske
laztanaren truka...
Alkar maiteak dira
biak, ezin uka,
aldiz eginagatik
hasarre burruka.

Oriotarren kezka
minena da barra;
itsasorako duten
ur-bide bakarra,
ogi bila joateko,
igaro beharra,
heriotza dutela
zelatari zaharra...

Oinez motela baita
antzara, urzale...
Hainbat, arrantzalea,
nagi kalez kale...
Bere otarrarekin,
behartsu maitale;
dunearn ase ditu
hamaika eskale.



**ARTILLERO***Herri kanta*

Artillero, dale fuego,
ezkontzen zaigula pastelero.
Eta zeinekin? Eta norekin?
Orpo zikinaren alabakin.

Orpo zikin, gona luze,
atzeko aldeko erregidore.
Jotzen zioten tarrapatatan,
zergatik neskatxa zatarra zan.

ATHARRATZEKO GAZTELUA*Herri kanta**Doinua: Benito Lertxundi*

Ozaze jaurganien bi zitroin doratü,
Atharratzeko Jaunak bata dü galdatü;
ükén dü arrapostü ez direla huntü,
hunttürük direnian, batto ükenen dü.

Portaliara joan zite, ahizpa maitia,
ingoiti horra düzü Atharratzeko Jauna,
otoi, erran izozü ni eri nizala,
zazpi egün hoietan ohian nizala.


Klara, zuaza orai salako leihora,
ipar ala hegua denez jakitera,
iparra balinbada, goraintzi Salari,
ene korpützaren txerka, jin dadila sarri.

Ama, juanen gira oro elkarreki
etxerat jinen zira xangri handireki
bihotza kargatürük, begiak bustirik,
eta züre alaba tunban ehortzirik.

Ama, saldu nauzü biga bat bezala,
bai eta desterratü, oi Espainiala.
Aita bizi üken banü, ama zü bezala
enindüzün ezküdüren Atharratzeko Salala.



Orpo zikin, gona luze,
kaleko loiaren erregidore.
Deitzen zioten zarran zan zan zan,
zergatik neskatxa zatarra zan.

**ATHLETIC***Herri kanta*

Athletic! Athletic! Eup!
Athletic gorri ta zuria
danontzat zara zu geuria.
Herriitik sortu zinalako
maite zaitu herriak.

Gaztedi gorri-zuria
zelai orlegian,
Euskal Herriaren
erakusgarria.
Zabaldu daigun guztiok
irrintzi alaia:
Athletic! Athletic!
zu zara nagusia!
Altza gaztiak!

**ATIA KAX-KAX***Herri kanta / Egunsenti*

Udaberrian abiatu nintzen dama
gazte bat bilatzen,
atia kax-kax jo nion baiña
etziraden erantzuten.

Errespuesta eman eta gero,
maitia zer nahi zenduke
zure gustua horrela bada,
biok lo egingo genduke.

Gure aita tabernan dago,
ama berriz sukaldian,
hemen atarian egongo gara
hoiek lotara artian.

AUPA GIZONA*Hitzak: Telesforo Monzon
Doinua: Pello eta Pantxoia*

Aupa, gizona! Jaiki, mutil!
Atzar, emazte ta neskatil!
Borrokarako dei eginaz
irrintzi bat dabil.
Euskal Herria diagu zai,
presoak eta hilak ere bai,
abertzale izanez gero, gaur
gauden denok anai.

Borrokari, luza zaidak eskua,
hona hemen nerea zabalik,
euskaldunak banan-banan hiltzea,
otso beltzak ez dik beste nahirik.
Euskadiren alde
loturik bagare,
goaz borrokara
nagusituko baikare.
Gerokoak geroko utzi,
gaur herriak zio:
nahi diat bizi!

Aupa gizona...

Agur, agur, andere askatasuna.
Agur, agur, biharko Euskadi.
'Iguzkitan dantzatuko gaituzu'
errana diot maiteñoari.
Besoak loturik,
ez dugu festarik,
nola dantzatuko
biok belaunikaturik?
Lehenik urratu katea
gero libro izanez
dantza egitea.

Aupa, gizona...



**AZKEN DANTZA HAU***Hitzak eta doinua: Manex Pagola*

Azken dantza hau,
maitia zurekin...
nahi zinduzket
eraman nerekin...
Bainan gaurko xedia
ezin daike betia!
Badakit, nik ere,
bihar dela joaitea!

Bego pena hau!
Itzuliren naiz
bai, berriz Euskal Herrirat!
Bego urte hau!
Etorriko naiz
betikoz zure ondorat!

Azken dantza hau
ez da sekulako...
Zin egina dut,
zin egin betiko,
hemen, gure lurrean,
bizi behar dudala!
Hori ez bada,
hilotz jar nadila!

**BAITUK ETA***Herri kanta / Egunsenti*

Baituk eta, ez duk eta...
baituk eta, bai guk ere
eurerik ez dek, xoxik ere
esan zidatek, baditukela
bi pistola ere sakeletan.

**BAGARE***Gorka Knor*

Arabana bagare,
Gipuzkun bagera,
Ziberun bagire,
ta Bizkaian bagara,
baita ere Lapurdi ta Nafarran.

Guztiok gara euskaldun,
guztiok anaiak gara,
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.

Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera,
bagire, bagara,
euskera askatzeko
oraintxe dugu aukera.

**BALDORBA***Hitzak: Urbeltz**Doinua: Benito Lertxundi*

Ezkil gabeko elizen
eremu emankorra,
giza murzuriko
zure ardientzat.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
eguzki eta haize idor,
mahats-ardo ibai,
galburuarena.

Lur gorri, harri landu,
mailu eta xixelaren kantu.
Gitarrazko alakiketan,
Armeniako kanun ahots urratuan.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!

Zure irriño erromanikoa
erdi izoztu eta leloturik
utzi zuen madarikatuaren
izena nahi dut,
izena nahi dut.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!

Oi Baldorba!
zutaz oroit eta
zuri nagozu,
zuri nagozu.

Kantu bat laburra da eta
pentsa zuk,
esaten ez dizudan hartaz.

Oi Baldorba! Oi Baldorba!
esazu nor zen bidetik
baztertu zintuen madarikatua!



**BALEAREN BERTSOAK***Hitzak: Orbegozo
Benito Lertxundi*

Mila bederatzirehun
ta lehenengo urtian,
maiatzaren hamalau
garren egunian,
Orioko herriko
barraren aurrian,
balia agertu zan
beatzik aldian.

Haundia bazan ere
azkarra ibilian,
buelbaka han zebilen
joan da etorrian,
hondarra arrotuaz
murgil igarian,
zorriak zeuzkan eta
haiek bota nahian.

Ikusi zutenian
hala zebilela
berihala juan ziran
traineruen bila,
arpoi ta dinamita
eta soka pila,
aguro ekartzeko
etzan jende hila.

Bost traineru juan ziran
patroi banarekin,
mutil bizkor bikainak
guztiz onarekin.
Manuel Olaizola
eta Loidirekin.
Uranga, Atxaga ta
Manterolarekin.

Baliak egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikartzekuak,
atzera egin gabe,
hango arriskuak,
arpoiakin hil zuten
han ziran hanguak.

Bost txalupa jiran ta
erdian balia
gizonak egin zuten
bai nahiko pelia,
ikusi zutenian
hila edo itoa
legorretikan bazan
biba ta txaloa.

Hamabi metro luze
gerria hamar lodi,
buztan palak lau zabal
albietan pala bi,
ezpainetan bizarrak
beste ilera bi
orraziak bezela
hain zeuzkan ederki.

Gorputzez zan mila ta
berrehun arrua,
beste berrehun mingain
ta tripa barrua,
gutxi janaz etzegon
batere galdua,
tinako sei pezetan
izan zan saldua.

Gertatua jarri det
egiarene alde,
hau horrela ez bada
jendiari galde,
bihotzez pozturikan
atsegintsu gaude,
gora oriotarrak
esan bildur gabe.

**BARATZEKO PIKUAK***Herri kanta*

Baratzeko pikuak hiru txorten ditu.
Dantzan dabilen horrek hankak arin ditu.
Hankak arinak eta burua arinago,
dantzan hobeto daki arta jorran baino.

Badakit baituzula bat eta bi ere,
esperantza galdurik ez nago ni ere.
Ai nere txiki polit, txiki, maite zaitut.
Atoz zaldi gainera, eramango zaitut.

**BEGIAK PARREZ-PARREZ***Herri kanta*

Begiak parrez-parrez,
bihotza negarrez, (Bis)
halaxe joaten nintzan, maitia,
zugandik, dolorez. (Bis)

Ama zuriak neri,
parian pasata, (Bis)
ez dit agurrik egin, maitia,
burua jirata. (Bis)

Ama zuriak neri
ez agur eiteko, (Bis)
zer palazio dauka, maitia,
zuri emateko? (Bis)

Palazio eder bat
haitzaren gainian, (Bis)
ez da euririk sartzen, maitia,
ari ez dunian;
ez da haizerik sartzen, maitia,
ez dabilenian.

BASERRITARRAK*Herri kanta*

Baserritarrak gera gu,
ezin gentzake ukatu, (Bis)
baina kaletarrak bezin ongi (Bis)
soinua jotzen degu. (Bis)

Kalian dira bi gauza
nei gustatzen zaizkidanak: (Bis)
ardotxo txuri goxo eta (Bis)
opil koxkor bigunak. (Bis)



**BEHIN BATIAN LOIOLAN***Hitzak: Bilintx**Jatorrizko doinua: John Denver Egan*

Behin batian Loiolan
erronomia zan,
hantxe ikusi nuen
neskatxa bat plazan;
txoria baino ere
arinago dantzan;
huraxe bai polita
han politik bazan!

Esan nion desio
senti nuen gisan,
harekin hizketa bat
nahi nuela izan;
erantzun zidan ezin
atsegin har nezan,
adituko zidala
zer nahi nion esan.



Aurkitu ginanian
inor gabe jiran,
koloriak gorritu
arazi zizkidan;
kontaktuko dizuet
guztia segidan,
zer esan nion eta
nola erantzun zidan.

Dama polita zera
politza guztiz, bai!
Baina, hala ere, zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biok!
esan zaidazu bai!
Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin... Ja-jai.

BERTSO BERRIAK*Hitzak: Bernardo Atxaga**Doinua: Ruper Ordorika*

Bertso berriak jartzera noa
euskara garbi batean,
hitz politen bila ez etorri,
hortaz gelditu atean.
Barruak lasaituko ditut
eztarriaren kaltean,
nire kantuak idurituko du
zakurren zaunka katean.

Uztaila hontan beteko ditut
nik nahi baino urte gehio,
ilea galtzearen nik ez dut
ematen gizon serio;
ene hitz garbienak ere ez du
inon ezer ere balio,
nire buruari sekulan ez dio
inork jarriko prezio.

Gau isil hontan ikusten zaitut,
iparraldeko izarra,
hamabost urteko neska baten
ametsa bezain ederra,
urruti zaude mundu hontatik,
librea eta bakarra,
inoren menpe kantatzen duzu ta
zure boza da zilarra.

Eguzkiaren hautsak horitzen
duenean egun berria,
pozten zara gaztain iluna,
zabaltzen duzu orria.
Ez zara makina beltz baten
pioi zerbizaria,
kalean arrastaka dabilen
nire antzeko piztia.



**BIZKAIA MAITE***Hitzak: Jose Angel Irigaray • Doinua: Benito Lertxundi*

Bizkaia maite,
 atzo goizean ikusi zintudan,
 soineko zuriz jantzia,
 buruan orlegi,
 bihotzean sua,
 nere gogoaren
 ertzatik pasatzen,
 zure usain gozoa, lana,
 amodioa, itsasoa,
 nere baitan sartzen...

Atzo goizean entzun nuen
 zure berbaren oihartzuna,
 zure kantaren fereka,
 bihotzean kilika
 eta oihartzunaren haunditasunean
 murgilduz joan nintzen,
 jausika, hegaka...
 Bart arratsean
 arbasoen baratzaren ondoan
 bertsotan eta dantzan
 lotu zinen alai, piper eta gatza.

Bizkaia maite,
 atzo goizean ikusi zintudan
 soineko zuriz jantzia,
 buruan orlegi,
 bihotzean sua.
 Olerkari
 penatuaren gozo eta mina,
 amodio eta kanta,
 zure berba leun,
 zure gatzaren bizia,
 zure burdinaren gorria dira gaur
 nerretzat aterbe...

Bizkaia maite,
 atzo goizean ikusi zintudan
 soineko zuriz jantzia,
 buruan orlegi,
 bihotzean sua,
 lirain, sendo, eder...

**BIZKAIKO ABERATSAK***Hitzak: Gabriel Aresti • Doinua: Oskorri*

Bizkaiko aberatsak
 dira diruzale,
 txerri-erosle eta
 txorizo-saltzaile.
 Dendaz bete dituzte
 Bilbon zazpi kale,
 inoiz ez dute eman
 pausorik debalde,
 burrukutzen baitute
 diruaren alde.

Somera, Artekale,
 gero Tenderia,
 han ikusi genuen
 mila komedia.
 Tenderoaren grinak
 nork erremedia!
 Gizonaren gainean
 han erori dira,
 hanka kendu diote,
 ai, zer aberia!

Euskal baserritarrak
 dadukan pobreza,
 baina haundiagoa
 askoren grandeza.
 Madrildik etorri den
 Korte Ingelesa,
 bertan sartuko balitz
 euskaldun baldresa,
 dirua gastatzeko
 manera erreza.


Ez zaitez bertan sartu,
 euskaldun maitea,
 zabalik badaukazu
 bertako atea,
 galduko duzu eta
 bigarren hankea
 bai eta, bide batez,
 zure hankartea,
 euskaldun batentzako
 zer errematea!

**BOGA, BOGA***Herri kanta*

Boga, boga, mariñela, mariñela!
 Joan behar degu urrutira, urrutira!
 Bai, Indietara! Bai, Indietara!

Ez det, ez det, ez det, nik ikusiko
 zure plai ederra, plai ederra;
 Agur, agur Ondarroako itsas, itsaso bazterra!

Mariñela!
 Boga!
 Mariñela!



**DAMA EDER BATI***Herri kanta*

Zu zerutikan jeitsiko ziñan
santuen baten mirariz
eta lur hontan utzi ziñuzten
beterik grazi ugariz.
Zurekin ezkontzera nuala
amets egin det bi aldiz
zalla da baina nahiago nuke
hala gertatuko balitz.
Dana da zure begitartea
hainbestek maite deguna
brillu egiten dizu arpegiak
hain dezu azal leguna
zoragarria izango da zu
ezkontzen zeran eguna.

**DOMINGO KANPAINA***Bilintx*

Mando baten gainian Domingo Kanpaina,
ez dihoa hutsikan mando horren gaina.
Azpian dihoana mandoa da, baina
gainekoa ere bada azpikoa adina.
Mando baten gainian bestia, alajaina.

**DONOSTIAKO HIRU DAMATXO***Herri kanta*

Donostiako hiru damatxo
Errenderian dendari.
Josten ere badakite, baina
ardoa edaten hobeki.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
ardoa edaten hobeki.

Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren gozua.
Hantxen edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basua.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basua kristalezkua.

Donostiako hiru damatxo
hirurak gona gorriak.
Sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira hordiak
eta kriskitin, kraskitin
arrosa krabelin,
irtetzen dira hordiak.

Donostiako hiru damatxo
ein omen dute apustu.
Zeinek ardo gehiago edanda,
zein gutxiago mozkortu.
Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
zein gutxiago mozkortu.

**EGUN DA SANTI MAMIÑA***Hitzak: Gabriel Aresti – J. M. Arrizabalaga
Doinua: Mikel Laboa*

Egun da Santi Mamiña
benetan egun samina.
Goiko zeruan gorde dezala
luzaro neure arima.

Esanen dizut egia,
hau ez da usategia.
Erroi artean izan nintzaden
benetan ausartegia.

Itsas aldean izarra,
hari begira lizarra.
Euskara salbo ikusi arte
ez dut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak,
argitzen dira belarrak.
Ageda gure martiriari
moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta
Euskal Herriak diotsa:
solomu luze dultzerik gabe
eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta
ken, berriz, nahigabeak,
esan noiz garen izanen gure
etorkizunen jabeak.

EGUNSENTI

Herri kanta

Egusenti argi berri
zera gure alai garri
gauari agur egin diogu
ta zuri ongi etorri.
Bertsolari, ameslari
denok gera abeslari
txori gaixoak ere pozikan
hasi zaizkizu kantari.



EGUNSENTIA


Benito Lertxundi

Eguzkiaren argia
leihopetik sartzean,
poz eta alaitasunez
esnatuko gera.
Txorien abestiek
alaitutako eguna,
gizonen gorrotoakin
hondatuko da eguna.

Ibiliko gera
alkarri kalte eginaz,
ustez lagunik handienak
aurrez ondo hitz eginaz.
Batzuen izerdiekin
besteek diru eginaz,
egia esan dutenak
giltzapera eramanez.

Gauza horiek ikusteko,
nolaz esnatzen gera?
Gauza horiek egiteko,
nolaz jeikitzen gera?
Txoriek alaitutako
eguna hondatzeko,
hobe genduke ez esnatu
ta bertan geldi lotan.

Ibiliko gera (...)



ENE MAITEA NAUZU

Iñaki Eizmendi

Ene maitea nauzu
bihotzetik desterratu,
nola jakin duzu
hainbeste zaitudala maitatu,
eta nire suaz, eta nire suaz
minez ez zara, ez zara urtu.

Udazkeneko lore
lur gorri ilunen antzu,
odol beroaz omen nintzen
nire bihotz labean sartu,
baina arratseko itzalaz,
baina arratseko itzalaz,
soil naiz bihurtu, bihurtu negu.

EPERRAK BADITIZŪ


Herri kanta

Niko Etxart

Eperrak baditizŷ bere bi hegalak,
bai eta bŷrŷn gainin kokarda eijer bat,
zŷk ere balinbazŷnŷn gaztetarŷn eijer bat,
neskatilen gogatzeko bilho holli pollit bat.
Zŷk ere (...)

Amorosak behar lŷke izan lotsa gabe,
gaiaz ebiltia ez ŷken herabe.
Egŷnaz ebiltia desohore leike
xoriak ere oro haier so dirade.
Egŷnaz (...)

Ebili izan nŷzŷ gaiaz eta beti.
Eia! atzemanen nianez lili eijer hori.
Azkenian atzeman dŷt; oi, bena tristeki.
Lŷmarik eijerrena beitzαιο erori.
Azkenian (...)



Usteak erran zidan
zutaz nintzela jabetu,
baina ederki didazu
arima barruan engainatu,
ni naizelako amodioz prest,
ni naizelako amodioz prest,
hau besterik ez diat, ez diat lortu.



**EPERRAREN KANTA***Herri kanta / Argoitia anai-arrebak*

Eperrak kantatzen du goizian goizetan
ez asko fiatzeko mutilen hizketan.
Fiatzen bazerade mutilen hizketan,
eroriko zerade harri labanetan.

Aire tun txikitun aire tun laire...

Haurrak ikas zazute euskaraz mintzatzen
ongi pilotan eta oneski dantzatzen.
Euskaltzaleak gera, neska-mutil gazte,
poza ta alaitasuna guk ditugu maite.

Aire tun txikitun aire tun laire...


**ERREGUETAN***Herri kanta*

Erreguetan ari nintzala
hartu nuen albistea,
ama zureak nahi ez duela
biok elkarganatzea;
nola ez neukan oraindiokan
gauz hori erabakia,
ber-bertatikan asmo hartzen det
lekaimetan sartutzea.

Min eriturik aurkitzen danak
egin beharko negarra,
nahiagatikan logratu ezin
desio nuen izarra.
Mundu hontatik eramango det
damutasun bat bakarra:
zu gabetanik nire bizitza
hemen igaro beharra.

Ez egin, arren, Inaziotxu,
horregatikan negarrik;
mundu honetan ez dago, bada,
egiterikan nahi danik.
Oroitu zaitetz beste bat ere
baduguela oraindik;
goiz-gauetako errezuetan
ez naiz ahaztuko zugatik.

Zure izena badaukat-eta
edukiko det gogoan;
besterenikan ez zait sartuko
nire bizitza osoan.
Debekatuzten dutenez gero
ezkondutzea munduan,
saia gaitezen ahaleginean
elkartutzeko zeruan.





ESKU EZKERRA

Benito Lertxundi

Haurra, jipoitu haute,
 behin eta berriz,
 esku ezkerrez Gurutze Santua
 egin dukelako,
 hirea balitz bezala errua
 ezkerrez trebeagoa izatea;
 baina denak bezala eskubiz egiten
 ikasi behar duk;
 bestela desberdina izango haiz
 eta hori gaizki ikusia zegok.
 Denak berdinak, berdinak denak
 behar omen ditek izan.
 Hi ere hala izatea nahi dik gizarteak
 ohitura onak gordetzeagatik,
 aurregi joan ez hadin,
 patxadan bizi direnei kezkarik ez sortzearren.
 Nahiz eta hiri esku zuzena okertu. (Bis)
 Dilin-dalan, dilin-dalan,
 dilin-dalan, dilin-dalan,
 zibilizazioaren kanpaia!
 dilin-dalan, dilin-dalan...

EUSKADIN, CASTILLAN BEZALA

Imanol

Ene Segurako aitonak,
 ogia behar zuenean,
 Castillara joaten zen
 jornalartzara,
 garietara.

Bere gitaia trebeenetakoa omen zen;
 bai, hori bai!
 Hamar haur zituen gosez etxean,
 bai, hori bai!

Castillako jornalariak,
 ogia behar zutenean,
 Goierriara joaten dira
 jornalartzara,
 fabriketara.

Kanpokoak bizkorrak omen dira peontzan;
 bai, hori bai!
 Hamaika haur badute gosez etxean;
 bai, hori bai!

Castillako soroez eta Goierriko tximiniez
 ene aitona eta kastellanoak
 jabe bazeneza,
 euren haurren aseak
 ez lukete ihes gehiagorik ikusiko.
 Ez Castillan, ez Euskadin!



**EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

*Hitzak: Xabier Amuriza
Doinua: Oskorri*

Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz, bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz. Zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan arnas, bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara hitz egiterik ez bada, bota dezagun demokrazia zerri-askara; geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez gara. Hizkuntza gabe esaidazue nola irtengo naizen plazara, geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna irabazteko eguna, pazientzia erre aurretik behar duguna; ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena? Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena? Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?

**EUSKALDUN BERRIAREN BALADA**

*Hitzak: Jon Sarasua
Doinua: Oskorri*

Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero, horregatik euskaltegira noa ni egunero. Euskaraz bazekien nire bisabueloak edo, baina ni rollo hontaz orain arte zero, goizero-goizero AEKn bezero, batzuetan ero, besteetan bero, baina ez dut milagro handirik espero.

Goizean goiz hasi behar dut motibazio bila, euskara ez da ingelesa, baina ez dago hila. Egun askotan pentsatzen dut hau dela inutila; nik ez daukat kulparik ez banaiz abila, hau da hau makila, aditz klase pila, hitzak beste mila; animo mutila esaten dute, baina ez da hain fazila.

Idea hau nire buruan ez dakit noiz hasi zen, baina batzutan ez naiz hemen gehiegi dibertitzen. Lau gauzak izen bat dute eta gauza batek lau izen, kokoteraino nago klaseak aditzen, pegatak ipintzen, ta dirua biltzen, nola sartu nintzen ez dut konprenitzen, lan on bat bilatzeko ez badu serbitzen.



**EUSKARAZ GAZTE***Hitzak: Ibai Esoain**Doinua: Imanol Urkizu*

Ez gaude lasai zeren jendeak sarritan hauxe ohi du egiten: 'Euskaraz gazte' esanagatik, gero erderaz hitz egiten.

Kantuz jai eta aste,
entzun behar gaituzte,
kalean zabalduaz:
Euskaraz Gazte.

Lotsa albora utzi eta hasi
euskarari indarra ematen,
gure hizkuntza ez dakitenek
gugandik ikasi dezaten.

Kantuz jai eta aste (...)

Euskaraz egin, euskaraz egin,
euskaraz egin ezazu, lagun,
hainbeste kostatzen den kanpaina
alperrik izan ez dakigun.

Kantuz jai eta aste (...)

**EUSKO GUDARIAK***Herri kanta*

Eusko gudariak gera
Euskadi askatzeko,
gerturik daukagu odola
bere alde emateko.
Irrintzi bat entzun da
mendi tontorrean,
goazen gudari danok
ikurriñan atzean.

EZ DIZUT IRIKIKO*Herri kanta*

Ez dizut irikiko
gau ilunian aterik
barrengoak ez daki
kanpokoaren berririk.
Zatoz eguna argitzen danian,
egongo gera alkarrekin.

Ai, ene! Ai, ene! Hogeita laugarrena
San Bartolome. (Bis)

Jeronimo, entzun zazu
neskatxarekin ibiltzen zera zu. (Bis)

Aita datorrenian, ama datorrenian
etxetik kanpora bialduko zaitu. (Bis)

**EZ, EZ DUT NAHI***Julen Lekuona*

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez.
Ez, holako zibilizaziorik!

Kaiolaren adarrak ditugu alboan,
eskuindarrek eskua zabaldu juxtuan.
Zigor indarren menpe, tiroak gogoan,
horrela biziterik ez dago munduan.

Poliziak nun-nahitik zerbait egitean,
pentsatu arazi nahi makil indarpean.
Iduri du garela kaiola batean
jarritako txoriak fusilen menpean.

Horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik,
zibilizazioaren sasi Jaungoikorik.
Libre nahi dut bihotzez, libre loturetik
basurdearen gisa, hortzak estuturik.



**EZ NAU IZUTZEN NEGU HURBILAK***Xabier Lete*

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan,
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan,
nolabaitezko kate geldian
unez uneko lerroan,
guztia present bihurtu arte
nor izanaren erroan.

Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak,
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak,
eguzki eder joan guztien
argia baitu bihotzak,
eta begien mila ernegai
iraganaren oroitzak.

Ez nau larritzen azken orduan
arnasa galdu beharrak,
bide xumea hesitu arren
amildegiaren larrak,
ardo berriak onduko ditu
mahastietan aihen zaharrak,
gure oraina arrazoiturik
beste batzuen biharrak.

Ez nau iluntzen baratztatikan
azken loreak biltzeak,
muga guztien arrazoi bila
arnas gabe ibiltzeak,
arratsaldeko argi betera
zentzu denak umiltzeak,
amets betezko loa baitakar
behin betirako hiltzeak.

**EZKONGAIETAN***Iparragirre*

Ezkongaietan zerbait banintzan,
ezkondu eta, ezer ez;
ederzalia banintzan ere,
aspertu nintzan ederrez:
nere gustua egin nuen ta
orain bizi naiz dolorez.

Nere andrea andre ederra zan
ezkondu nintzan orduan.
Mudatuko zan esperantzarik
ere batere ez nuan;
surik batere baldin badago,
maiz dago haren onduan.

Zokoak zikin, tximak jario,
haurra zintzilik besoan;
adabakia desegokia
gona zaharraren zuloan;
hiru txikiko botila haundia
dauka berekin alboan.

Nere andrea goiz jeikitzen da
festara behar danean;
buruko mina egiten zaio
hasi baino lehen lanean.
Ta zurekin zer gertatuko zan
nik bildurrian ez nuan!



**FURRA FURRA***Oskorri*

Furra furra fandangua
hortxe duzu fandangua
geure gustukua.

Gaur goizean jaiki naiz
suerte onean,
tanke bat topatu dut
neure kafesnean.
Ez dakit zer daukagun
bakea ala gerra,
baina nik, badaezpada,
egin dut puzkerra.

Furra, furra (...)

Zerbait egitekotan,
zuzen eta artez,
zorri bat garbitu dut
ur-pistola batez;
orain galdurik nago,
beldurrez beteta,
muniziorik gabe
gelditu naiz eta.

Furra, furra (...)

Neure arma bakarra
dut akordeoia;
hauspoari eraginez
dirudi lehoia.
Eskua jaten badit,
on egin dezaion;
Cervantesi holakorik
gertatu zitzaion.

Furra, furra (...)

Eta orain banoa
berriro ohera,
bila ez badatozkit
lo-lo egitera;
bihar ikusiko da
zer dagoen berri,
jakintsuenak ere
ezin du igerri.

Furra, furra (...)

**GALERIANOAREN KANTUA***Hitzak: Bordaxuri**Doinua: Pello eta Pantxo*

Mila zortzi ehun ta hamabertzgarrena,
ni Hazparnen preso hartu nindutena;
Plumagaineko premu, orok dakitena,
galeretan higatu beharko naizena.

Kantatzera noazu alegera gabe,
ez baitut probetxurik, tristaturik ere;
nehun ebatsi gabe, gizonik hil gabe,
sekulakotz galerak enetako dire.

Ala, zorigaitzeko premu izaitia!
Harek eman baiteraut betikotz kaltea;
aitari galde eginik sortzeko partea,
galeretan eman nau, hauxe duk doteal!


Ene aita da gizon kontsideratua,
semia galeretan du segurtatua;
nun-nahi otoitzean, belaunikatua,
saindu iduri, debru madarikatua!

GAZTE NAIZ ETA LORIOS*Herri kanta*

Gazte naiz eta lorios, izpiritua kurios,
batez agradoz, bertziak jelos,
mutil gaztekin gau oroz.
Ama, ez nizan bada uros,
gorputza ezpaitut maluros?

Ate onduan makila, ta lehoi azpian zulu bi,
nere maitea handik sartzen da,
sekeretuan krudelki,
sekeretuan krudelki eta
amak oraino ez daki.

Nere alaba mutur zabala, zertan habila hi hola?
Ez dun, ez, pollit gauerdiko ondoan
mutil gaztekin lanbura.
Ala etzakinat ote habilan
jorratu nahiz alorra?






GAZTE-GAZTETATIKAN

Iparragirre

Gazte-gaztetatikan
herritik kanpora,
estranjeri aldean
pasa det denbora.
Herialde guztietan
toki onak badira,
baina bihotzak dio:
zoaz Euskal Herrira!

Agur ene bihotzeko
amatxo maitia,
laster etorriko naiz,
kontsola zaitia.
Jaungoikoak nahi badu
ni urez joatea,
ama, zertarako da
negar egitea?



Lur maitea uztea
da negargarria,
hemen gelditzen dira
ama ta herria.
Urez noa ikustera,
bai, mundu berria;
oraintxe bai naizela
erukigarria.

GAZTELUGATXE

Hitzak: Natxo de Felipe
Doinua: Oskorri

Seirehun urte inguru
kosta aldean zen gertatu,
itsasgizon zahar batek
behintzat hala zidan kontatu,
enbat itzelak Gaztelugatxen
untzi eder bat zuen hondatzen,
euskaldunontzat barruan
altxor haundiak ei zekartzan.

laz udako goiz batez
eguzkiaren lehen printzez
jo nuen itsas barrena
bihotzak dardara eginez,
murgildu nintzen ur gardenetan,
arakatu ongi hare-haitzetan,
han zegoen tinkaturik
goroldioak estalirik.



Indar guztiaz bultzatzen
altxor kutxa zabaldu nuen,
atzera egin ninduen
uhin handia altxatu zen,
inor ez zapaltzeko gogoa,
zapalduak ez izatekoa,
hau da gure urguilua
altxor guztien iturria.

Eta hau hola ez bazan
sar nazatela kalabazan,
ipuin txit barregarriak
kontatu nizekizuen plazan.

GERNIKAKO ARBOLA

Iparragirre

Gernikako arbola da bedeinkatua,
euskaldunen artean guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu munduan frutua;
adoratzen zaitugu, arbola santua.

Mila urte inguru da esaten dutela,
Jainkoak jarri zuela Gernikako arbola.
Zaude, bada, zutikan orain ta denbora,
eroritzen bazera, erraz galdu gera.

Erregutu deiogun Jaungoiko Jaunari
pakea emateko orain eta beti;
bai eta indarra ere zerorren lurrari,
eta bendizioa Euskal Herriari.



GITARRA ZAHARTXO BAT

Iparragirre

Gitarra zahartxo bat det
nik nere laguna,
horrela ibiltzen da
artista euskalduna,
egun batian pobre,
bestietan jauna,
kantatzen pasatzen det
nik beti eguna.

Nahiz dala Italia,
orobat Frantzia,
bietan bilatu det
mila malizia;
korritzen badet ere
nik mundu guztia,
maitatuzten det beti
Euskaldun herria.

Jaunak ematen badit
neri osasuna,
oraindik izango det
andregai bat ona;
nahi badet frantsesa,
interesaduna,
baina nik nahiago det
hutsik euskalduna.

Adios, Euskal Herria;
ez, baina, betiko.
Bost-sei urte hontan
ez det ikusiko.
Jaunari eskatzen diot
grazia emateko
lur maite eder hontan
bizia uzteko.



GOIKO KALEKO

Herri kanta / Orioko txistulari taldea (Orio Kantari)

Goiko kaleko Joxepaneko Maddalen
atzo goizian iturritikan zetorren,
esanaz
etxeko lanak zeudela danak eginak,
baina usularen uztaiak zauden zikinak.

Goiko kaleko Maddalen
atzo goizian zetorren
muxu bat eman zidan
eskatu baño lehen.
Maddalen, Maddalen.



GOIZEKO EURI ARTEAN

Txomin Artola

Goizeko euri artean, aterkiñarik gabe,
eskuak sakelean, pena bat bihotzean.
Etxetik urruti nago, kalean bakarrik,
goizeko euri artean, kitarra bakarrekin.

Lan bat hartu behar dut, gaur zerbait bazkaltzeko,
inork ez nau hartu nahi, arrotza naizelako.
Kaletan abestu dut nire herriko kanta,
jendeak zerbait utzi du, goizeko euri artean.

‘Ez horrela ibili’ neskatzak esaten dit,
hobeki hemen bizi gu biok elkarrekin.
Batzuetan galdetzen diot neure buruari
zertarako naizen hemen,
zergatik ari naizen
betiro kezkatzen.

Baina aurrera joan behar dut, bidea hartu arte,
bakarrik izan behar dut, hori iritsi arte,
eta egun on batean pozik ikusiko dut
eguzkia agertzen goizeko euri artean.



GOIZIAN ARGÍ HASTIAN

*Herri kanta
Benito Lertxundi*

Goizian argi hastian, ene leiho-hegian
txori bat pausatzen da eta goratik hasten kantan.
Xori eijerra, hain alegera, entzuten haidanian
ene bihotzeko tristura laister duak aidian.

Ene xoririk maitena, zertaz jin hiz nigana,
iratzarrazi nialarik ametsik eijerrena.
Jinik hain goizik, uste hiena baniala hanitx pena?
Ez, ez, habil kontsolatzera malerüsago dena.

GORA TA GORA BETI

*Hitzak: Gabriel Aresti
Doinua: Oskorri*

Gora ta gora beti
haik gora Lapurdi!
Euskarak bizi gaitu
eta bizi bedi. (Bis)

Gorantza doa agudo kapitala
eta Lapurdi beti dago apala,
aldrebesturik dago mundu zitala.
Konformatzen ez bagara
ze pekatu mortala!

Gora ta gora (...) (Bis)

Gurea ez da bizimodu normala,
lurra lantzeko haitzurra eta pala,
lanaren truke kobratzen erreala.
Benetan da miserable
euskaldunon jornala.

Gora ta gora (...) (Bis)

Munduan ezin bizi diteke hala,
merkatuetan dena gora doala,
etxera eta zopa guztiz argala,
kriseiluen olioia
ez da postre formalia.

Gora ta gora (...) (Bis)



**GURE KUADRILLAN***Herri kanta*

Gure kuadrillan,
gure kuadrillan,
gure kuadrillan mozkorra franko
eta, gainera, soltero.

Eta, gainera,
eta, gainera,
eta, gainera, ezkontzerikan
ez duena espero,
ez orain ta ez gero.



Hau dek zorioneko,
ezkondu beharra,
ezkondu baino lehenago
biziko naiz mutil [neska] zaharra.

HABANERA*XABIER LETE*

Berriro itzuliko balitz
iragan denbora arrotza
berdin kontsumi nezake
bainilla gozo artean,
itsaso urrun batetan,
irudimena galdurik,
udaberriko euritan
larrosak pitzen ikusiz.

Osaba komertzianterik
ez nuen izan Habanan,
pianorik ez zegoen
bizi nintzen etxe hartan,
neskatxen puntilla finak
udako arratsaldetan,
errosario santua
neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute
ezpain bustien gustoa,
desiozko hotzikaran
etsipenaren tamalez,
gaua zelatan dakusat
kontzientzia bilutsik,
badoaz ordu geldiak
gogorapenen hegalez.



Jaio ginen, bizi gera,
ez dugu ezer eskatzen,
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan,
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz
girotutako arratsetan
algarak entzuten ziren
Habanaiko putetxetan,
abanikodun mulatak
gauari haize egiten
musiken aire nagiek
odola erretzen zuten.

Jaio ginen, bizi gera,
ez dugu ezer eskatzen
itsasontzia astiro
kaiatik ari da urruntzen.
Antillak zintzilik daude
argazkien paretetan,
karta bat idatziko dut
norbaitek erantzun dezan.

**HAIZEA DATOR IFARRALDETIK***Xabier Lete*

Haizea dator ifarraldetik, hego berotik ekaitza,
ez da nabari lanbro artean zuhaitz hautsien emaitza.
Eguneroko lagunak ditut beldurra eta zalantza,
ardo txar honek eragiten dit noraezoko balantza.

Itzal gaiztoak isurtzen dira mendi hegaletan behera,
argi apalak badoaz laster bat-batean italtzera.
Ez dut utzi nahi izen zehatzik izengabetan galtzera,
prestatzen gera etxe hustua arrotz guztiei saltzera.

Etxea hustuz badoa ere noizpait bazuen biztunik,
ez dut onartzen ordezkatorren maizter aldrebes hitzunik.
Inork ez baitu ausart hartu nahi berezko karga astunik,
gurdi okerra zuzen lezaken dotrinarikan ez dut nik.

Agur oihanak, agur itsaso, atariko lizardia,
imajinetan ezkututzen zait hurbileko izadia.
Ur epeletan isuriz doa odolezko izerdia,
irrintzi gorritz jauzika dator irabazleen zaldia.

**HARA NUN DIRAN***Iparragirre*

Hara nun diran mendi maiteak!
Hara nun diran zelaiaik!
Baserri eder zuri-zuriak,
iturri eta ibaiak.
Hendaian nago zoraturikan,
zabal-zabalik begiak,
hara, Euskal Herri! lur hoberikan
ez da Europa guztian.

Oi, Euskal Herri, eder maitea!
hara hemen zure semea,
bere lurrari muin egitera,
beste gabe etorria.
Zuregatikan emango nuke
pozik, bai, nere bizia;
beti zureztat hil arteraino
gorputz ta arima guztia.

**HAU DA EGUN EDERRA***Pier Paul Berzaitz*

Hau da egun ederra
mila xoriek kanta,
ziauri ene erregina
besoak zuri ditzüt para.

Baratze bat nahi deizüt egin
amets segretü enekilan,
liliak egün jauntsi ederrenetan
mila kolorez dantzan bihotzetan.

Gaü beltz ta sakonetik
elkitzen naiz hostürük,
bihotza hain tristerik,
zütaz hainen berantetsitürük.

Karrosa bat hor dügü
kanpoan güre haidürü,
ez gal habor(o) denbora,
hiskor beitagö amodioa.

Maitarzün berriari
ilargiak dü argi
emanen dekü aski
gük elgar maita dezagün beti.

**HAURTXO TXIKIA***Herri kanta*

Haurtxo txikia negarrez dago,
ama, emaiözu titia;
aita gaiztoa tabernan dago,
pikaro jokalaria.

Aita jokuan, ama lanian;
hauxe bai, negargarria!
Eskerrak zuri, lore polita,
alaitzen dezu etxia.

Ardoa edan, txanponak galdu,
holaxe dabil aitatxo;
Jainko maitia, gutzaz erruki,
erruki zazu amatxo.

Inoiz aitatxo txintxotzen bada,
oi, zeinen esker haundia!
Orduantxe nik bai ekarriko
zapata berri txuriak.

HEGOAK EBAKI BANIZKIO*Hitzak: JoseAnton Artze**Doinua: Mikel Laboa*

Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo;
baina, horrela,
ez zen gehiago txoria izango;
baina, horrela,
ez zen gehiago txoria izango.
Eta nik...
txoria nuen maite.
Eta nik...
txoria nuen maite.

HERRIBEHERA*Benito Lertxundi*

Herribehera, Herribehera!
Zure landen zabalera
ortzi-muga den hartan mugatzen da.
Zure lur emankorretan
isurtzen diren asmoak
gogotsu hartuko ahal ditu lur gozoak!
Zure gaztelu zaharrek
gorderik duten antzina
hats tristetan mintzo da haren mina.

Horma zahar arrailduetan
xoriak dira kantatzen,
mendetako lo geldia salatzen.
Nafarra anai zaharra,
kondairaren lehen sustarra,
bego higan arbasoen amets hura.


**HERRIKO FESTAK***Herri kanta*

Herriko festak ziran biharamonian,
berak nahi zuten txoko, txoko batian,
harri txabal-txabal baten gainian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Lau atso: hiru neskazahar,
bat alarguna,
jarririk itzalian,
harri txabal-txabal baten gainian,
ari ziran, ari ziran trukian.

Hasi ziradenian kartak partitzen,
eta gainera tantuak kontatzen.
Trun jota, ta lñaxik txota,
Mariak txaldun, Errufinak hirua.
Mari Martin, txoratu al zain burua?
lauarekin hiruaren keinua.

Neska egon hadi ixil-ixilik
hik ez den ikusi nere keinurik!
Tanta bat edanez gero,
begiak dir-dir, ezin egon ixilik
edan ezan, edan ezan gogotik,
katilua, katilua beterik.

**HUTSA***A. Valverde*

Euskal sustraia
herri honen mamia non dago?
Hauxe duk nere ustea:
ez cromlech ez dolmenetan
ez harri koxkor zaharretan...

Itsaso-bazter etxetan
ta mendi baserrietan,
oraindik bizirik bañan
huts sakon illunpetan
estaltzera dijoakigun
hizkuntza gurean...
Mendi-mendian otea
botoi horiaz betea,
Jorge de Oteiza, hi haiz
ola-gizonen semea.

Hire mailuak, ordea,
irudimenezko mailu horrek,
ez tiriki-taukirik
hutsa moldatzeko joak
ez baitute soinurik...
bihotzarentzat baizik.

**IA GURIAK EGIN DU***Xenpelar*

la guriak egin du,
badegu zeinek agindu. (Bis)
Ez oraindik umildu,
alkarregana bildu,
gerra nahi duen guzia
berari kendu bizia.

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde. (Bis)
Zeinek nahi duen galde,
berari tira, dale,
bala bat sartu buruan,
aspertuko da orduan.

Gu gera hiru probintzi
lehengo legerik ez hautsi. (Bis)
Hoieri firme eutsi,
nahiz hanka bana hautsi;
jaioko dira berriak,
gu gera Euskal Herriak.



**IDUZKI DENIAN***Herri kanta*

Iduzki denian, zoin den eder itzala.
Maitia, mintzo zira plazer duzun bezala,
egiten duzula mila disimula,
iñorant zirela,
erraiten duzula bertzetaik naizela,
faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,
erraiten zautala “ez dut bertze maiterik”.
Hitzer fidaturik nago tronpaturik,
gaixua trixterik,
ez dut eiten lorik, ez jan-edanik,
maitia zuregatik.

IKUSI MENDIZALEAK*Herri kanta*

Ikusi mendizaleak
baso eta zelaiak,
mendi tontor gainera
igo behar dugu.
Ez nekeak
ezta bide txarrak.
Gora, gora, Euskal Herria!
A, a, a!
Gu euskaldunak gera,
Euskal Herrikoak!

Hemen mendi tontorrean
euskal lurren artean,
begiak zabaldurik,
bihotza erreta.
Hain ederra,
hain polita da-ta.
Gora, gora, Euskal Herria!
A, a, a!
Gu euskaldunak gera,
Euskal Herrikoak!

**IKUSTEN DUZU GOIZEAN***Elizanburu*

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean:
etxe tipitto aitzin xuri bat
lau haiz handiren artean,
iturritto bat aldean,
txakur txiki bat atean,
han bizi naiz ni bakean.

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sorlekua,
aiten aitek hautatua.
Etzetik kanpo zait iduritzen
nonbait naizela galdua,
nola han bainaiz sortua,
han utziko dut mundua,
galzten ez badut zentzua.

Ez da lurtean gizonik,
erregerik ez printzerik
ni baino hobeki danik:
badut andrea, badut semea
alaba ere badut nik,
osasun ona batetik
ondasun asko bestetik
zer gehiago behar dut nik?

**ILUNABARRA***Herri kanta*

Eguzkia hasten da
jetsitzen, jetsitzen,
dizdizera ederra
zaiola gutxitzen.

Diamantezko printzak
zaizkonian galtzen,
urrezko bola baten
itxuran da jartzen
eta geldi-geldi
da itsasпера sartzen.



**ILUN-İKARAK**

*Hitzak: Jon Enbeita
Doinua: Imanol*

Ilun-ikarak azken argia
uxatu dizu urrutira,
zeru-sapaian izar bakanak
itzal etzane! begira,
ilun-txintako sorgin-usaiak
espazioan dirdira. (Bis)

Mendi-hegitan argi-oroitza
eguzkiaren keinua,
baso beltzean hosto-firfira
gauetzkoen erreinua.

Itsas-txoriak txio-txioka
harat-honako haizetan,
berde argien edertasuna
more motelduz uretan,
txalupa geld! kulunkarien
isladarekin hizketan. (Bis)

Parke ixileko banku txuria
ezpain beroen lankide,
antsi zaharrak zantzu berritan
bihotz gordinen senide,
tristura hegan paseatzen da
arratsaren solaskide. (Bis)

Gau-ezkilaren oihartzun hotsa
irixtatzen da kolokan,
zirrara mutu baten gisara
maitearen soinekoan,
bakardadea sekretuekin
korapiltzen den zokoan. (Bis)

Itxas-aideak gesalez dakar
murmuriozko solasa,
suspriotan ezin jarioz
pena lurrinduen hatsa,
haize boladak txikordatzen du
maiteminduen jolasa. (Bis)

**IPARRAGIRRE ABILA DELA**

Xenpelar

Iparragirre abila dela
askori diot aditzen,
eskola ona eta musika,
hori hoiekin zerbitzen.
Ni ez nazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen,
komediante moduan;
debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika,
bertsolaria, gainera;
gu ere zerbait izango gera
horla hornitzen bagera.
Hatoz gure kalera,
baserritar legera,
musika hoiek utzita;
Erreterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita.

ISIL-ISILIK DAGO

Herri kanta

Isil-isilik dago
kaia barrenian,
untzi txuri polit bat
uraren gainean. (Bis)

Goizeko ordubietan
esnatutzen gera,
arrantzaliak beti
joateko urrutira. (Bis)

Pasatzen naizenian
zure leihopetik,
negarra iritetzen zait
begi bietatik. (Bis)

Zergaitik, zergaitik, zergaitik?
Zergaitik?
Zergaitik negar egin?
Zeru an izarra dago
Itsaso aldetik. (Bis)

Bat, bat, bat, bart parrandan ibili
bart parrandan ibili.
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili,
ez naiz ondo ibili.
Hiru, hiru, hiru, kolkua bete diru,
kolkua bete diru.
Lau, lau, lau, sardina bakalau.

ITSASOIA LAINO DAGO

Herri kanta

Itsasoa laino dago
Baionako barraraino.
Nik zu zaitut maitiago
txoriak beren kumiak baino.

Anteron txaparrotia,
Francoren bibotiak,
haretxek eraman, eraman
preso Euskal Herria. (Bis)

Hau dek, hau dek,
hau dek umoria!
Kontsolatzeko,
kontsolatzeko,
euskaldun jendia!

Kalian gora,
kalian behera,
kalian gora xexenak!
ai, ai, ai, ai!
Kalian gora,
kalian behera,
kalian gora xexenak!
Kalian gora,
kalian behera,
kalian gora,
kalian behera,
kalian gora,
kalian behera,
kalian gora xexenak!




Gure oroiz aita dago
lainopian gaberraino.
Nik zu zaitut maitiago
arraintxoak ura baino.

**ITSASOARI BEGIRA***Hitzak: Jon Maia**Doinua: Benito Lertxundi*

Zazpi mendeko gauean gaude
gure lore eta sasi,
irrintzi, oihu, ele ta ulu,
marmario ta garrasi,
haize enbata, brisa, galerna,
gaur garbi, bihar nahasi,
xake taularen zuri beltzetan
arrats gozo egun gazi,
ai, itsasorik ez bageneuka
zeri so negarrez hasi?

Gure zuhaitza landatu degu
amildegi muturrean,
adarrak dauzka ertzetik haruntz;
sustraiak, berriz, lurrian,
bihotz hesteak estu helduaz
esku baten ahurrean.
Bertso berriak jartzera noa
bere indar laburrean,
nola malko bat isuritzen dan
itsasoaren aurrean.

Nola haizea, ur azalean
eguzkiaren irteeran,
nola kaiok zorabioan
itsas enbata bezperan.
Pentsatzen nago gu ere berdin
ibiltzen ez ote geran
susmoa daukat gure patua
itsasoa ez ote dan,
libre ta zabal degu aurrean
baina ezin degu edan.



Heldu herria sustraietatik,
tira eta gora jaso,
jarri Kantauri aurrean eta
mantendu zutik hari so.
ispilu hortan ikus gaitezen
herriz herri, auzoz auzo,
zauriak gatzez itxi ditzagun,
malkoak urez eraso,
zabal ta libre irla txikia
salbatuko da akaso.

Azken arnasa eman nahi nuke,
eguna hiltzen ari da,
azken arnasa eman nahi nuke,
bertsoak entzuten dira,
azken arnasa eman nahi nuke,
kantari nator herrira,
azken arnasa ematen degu
eguzkitik eguzkira,
azken arnasa eman nahi nuke,
itsasoari begira.

ITSASONTZI BATEN*Kaxiano*

Itsasontzi baten
Euskal Herritik kanpora
naramate eta
ez dakit nora.

Agur, nere ama
laztan goxoari.
Agur, nere maite politari.
Ez egin negar,
etorriko naiz,
egunen baten,
pozez kantari.

Itsasontzi...

Agur, senideak
agur, lagunari,
agur, Euskal Herri osoari.
Ez egin negar,
etorriko naiz,
egunen baten,
pozez kantari.

Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari!





ITZIARREN SEMEA

Hitzak: Telesforo Monzon • Doinua: Pello eta Pantxoia

Itziarren semeak
ez du laguna salatzen,
eta zakurren aurrean
tinko ta ixilik egoiten.

Itziarren semea, hori duk mutila!
inor salatu baino nahiago du hila,
harro egon liteke Maddi neskatila,
espexxetik jalgi ta joanen zaio bila!
Maddi neskatila, hori dun mutila!
inor salatu baino nahiago du hila!

—Haurra, zer egin haute holan agertzeko?
—Ama, jo egin naute mintza arazteko.
—Izenik eman al duk? Esantzak egia!
—Ez ama, ez dut eman! Jalgi naiz garbia!
—Jalgi haiz garbia?
—Bai ama, egia!
Ta amak eskaini zion klabelin gorria.

Zazpi gizon nituen joka inguruan,
makilaz hartu naute ostikoz lurrean,
bainan nik ez dut eman lagunen izenik
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik,
lagunen izenik ez baitut eman nik,
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.

Lau aldiz sartu naute uretan burua,
zangotik euki naute zintzilikatua,
bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik,
zangotik zintzilik, ni beti isilik,
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.

Izertia ta odola burutik behera,
ezpainak urratu ta azazkalak atera,
bainan nik ez dut eman lagunen izenik,
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik,
odolez beterik, ni beti isilik,
ta hantxe gelditu dira fitsik jakin barik.

Itziarren semeak
ez du laguna salatzen,
eta zakurren aurrean
tinko ta isilik egoiten.
Espetxerat igorri dute,
amak ez du ezagutu.
Eta Maddik, pulliki-pulliki,
eman diozka bi musu.



IZARREN HAUTSA

Xabier Lete

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean noizbait ginaden gu ernai.
Eta horrela bizitzan gera sortuz ta sortuz gure aukera,
atsedenik hartu gabe. Lana eginaz goaz aurrera,
kate horretan denok batera gogorki loturik gaude.

Gizonak badu inguru latz bat menperatzeko premia,
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,
jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu
lege berriak noizbait erditu, hortan jokatuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu, ezagutuz aldatzea,
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.
Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrrari lotuz,
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.

Ez dadukanak ongi ohi daki eukitzea zein den ona,
bere premiak bete nahian beti bizi da gizona.
Gu ere zerbait bagera eta gauden tokitik hemendik bertan
saia gaitezen ikusten: amets eroak bazterturikan,
sasi zikinak behingoz erreta, bide on bat aukeratzen.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,
burruka hortan irauango duten zuhaitz-ardaska gazteak.
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.





JAUN BARUA

Herri kanta

Benito Lertxundi

Jaun baruak aspaldin xederak hedatü zütin,
txori eijer bat hatzaman düzü Paubeko seroren komentin
orai harekin biziren düzü aspaldian gogun beitzün.

Xedera balitz halako merkatietan saltzeko,
Ziberuako aitunen semek eros litzazkie oro,
halako txori eijertto zunbaiten hatzamaiteko.

Igaran apirilaren бүrian, armadaren erdian,
züntüdan bihotzian, armak oro eskian;
present espiritian, manka besuen artian.

Jauna maite banauzü, erraiten düzün bezala,
kita ezazü, kita ezazü Erregeren zerbütüa,
eta maita herria, üken dezadan plazera.



JOXE MIELEN BATELA

Herri kanta

Joxe Mielen batela
txitxarrua eta berdela. (Bis)

Joxe Miel, Miel Joxe
Joxe Miel, Miel Joxeren batela!



KALERA, KALERA

Imanol

Altza begiak zapaldu orok,
deiadarra lagunari,
berriro izango gaituk kide
indar emanaz iraultzari.

Kalera, kalera, borrokalaria, kalera.
Hire indarraren beharra diagu
gure indarrarekin batera.
Zai dago ama, zai aita,
zai andre ta lagunak.
Hator, hator Euskadira;
hator, hator etxera.

Ezin gure oihuak isildu
ezin gaituzte zapaldu,
lagunak non diren badakigu,
oihuka herria daukagu.

Bultza ta bultza euskal langile,
euskal populu sufritu,
burni kateak erre labetan,
danba-danba lurrera kartzelak.

Luza eskuak indarrrik baduk,
jaikitzeko garaia da;
herri guztia zuen zai dago
denok eskuz esku helduta.

KALERA NOA IHESI

Oskorri

Ni bizi naiz baserrian
animalien erdian, (Bis)
bertsotan kontatuko dizuet,
mundu guztiak dakila,
nola nagoen mendian
bizidunen hilobian.

Jaikitzen naiz egunero
oilarrak jo eta gero, (Bis)
lanetik eta lanera beti
nola ninteke hain ero!
Kalera aldegin edo
sartuko naiz gerrillero.

Lanez banago ase
ordaina ez da luzea, (Bis)
mendi goietan egonagatik
hauxe da nire leizea,
emaidazu guraizea
urra dezadan haizea.

Kalera noa ihesi
neure gurdi eta guzi, (Bis)
ez naiz menturaz han ere ongi
ibiliko lehendabizi,
baina ez ninteke bizi
baserrian bezain gaizki.

Agur baserriko mendi,
hil arteko urkamendi, (Bis)
hiltzeko bada ere zugana
berriro itzul banendi,
mundua ez dabil ongi
edo nauzu ero haundi.

**KANTARI NATOR***Herri kanta / Egunsenti*

Kantari nator bañan
bihotza daukat triste
nik iñon min dedanik
ez du inork uste
ez naiz mutil ederra
maitetxu laztana,
baina bihotz bat badet
hoberik ez dana
maitasunez beterik
nator zuregana.

KANTUZ*Hitzak: Mendiage**Doinua: Mikel Laboa*

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi,
kantuz izan dudano zerbait irabazi,
kantuz gostura ditut guziak iretsi,
kantuz ez duta, beraz, hiltzea merezi?

Kantuz iragan ditut gau eta egunak,
kantuz ekarri ditut grinak eta lanak,
kantuz biiltzen nituen aldeko lagunak,
kantuz eman daustate, obra gabe, famak;
kantuz hartuko nauia zeruko Jaun onak!

Kantuz eman izan tut zorbaiten berriak,
kantuz atseginekin erranez egiak,
kantuz egin baititut usu afruntuak,
kantuz aitortzen ditut ene bekatuak;
kantuz eginen ditut nik penitentziak!
Kantuz eginez geroz munduan sortzia,
kantuz egin behar dut, ontsalaz, hiltzia,
kantuz emaiten badaut Jainkoak grazia,
kantuz idekiko daut San Pierrek atia;
kantuz egin dezadan zeruan sartzia.

Kantuz ehortz nezate, hiltzen naizenian,
kantuz ene lagunek harturik airian,
kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian,
kantu frango utziko diotet munduan,
kantuz has ditzen beti nitaz oroitzian.

KAPITAIN PILOTU*Herri kanta*

Ni naiz Kapitain Pilotu.
Ni naiz Kapitain Pilotu.
Neri behar zait obeditu, obeditu.
Bestela zenbaiten kasketa
bonbilun, bonbilun behera
egin ezkeru zenbaiti,
bonbilun bat eta bonbilun bi
eragiok Santi arrau horri.

**KONTRAPAS***Hitzak: Bernart Etxepare**Doinua: Xabier Lete*

Garaziko herria
benedika dadila
euskarari eman dio
behar zuen tornua (Bis).

Euskara, euskara,
jalgi hadi plazara! (Bis)

Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien,
orai dute forogatu
engainatu zirela.

Euskara, euskara,
jalgi hadi plazara! (Bis)

Bertzeak oro izan dira
bere goien gradora,
orain hura iganean da
bertze ororen gainera.

Euskara, euskara,
jalgi hadi plazara! (Bis)

Oraindaino egon bahiz
inprimatu bagerik,
hi engoitik ebilliren
mundu guzietarik.

Euskara, euskara,
jalgi hadi plazara! (Bis)





LASARTE, OMENALDI EGUNEAN

Manuel Lasarte

Gaur erregaliz jantzi naute ta pozik arkitzen naiz ziñez, nik onenbeste merezi nunik nago siñistu eziñez; baño leitzarrak au dena egin dute borondate piñez; kezka bat daukat: zueri zorrak nola ordaindu jakin ez.

Nere iduri bat ere or jarri dute erriko kalean, ongille denak eskertu naian nabil iñundik aalean. Esan nezake: jaio nintzan lur bedeinkatu zabalean, bularra artzen ari naizela gaur amaren magalean.

Ez nuen uste garai batean malla ontan ibiltzia, erri batean nere izena ain aundi erabiltzia; nik naiko nuke bizi naizela zuekin sarri biltzia, ta eriotza datorrenean gorroto gabe iltzia.

Zalla da bertsoz adierazten sentitzen dedan poz dana, bakarrik ez da beiñere bizi senide asko dauzkana; agur, entzule maitagarriak, ta agur, Leitza laztana, Oriyon dezu zeure seme bat zutaz aztuko eztana.

LAU TEILATU

Itoiz

Hemen gaude ta poztutzen naiz, ta ziur zure aita ere bai; ta zer ondo, zelan dihoia zure bufanda txuria?

Lau teilatu gainian, ilargia erdian eta zu goruntz begira. Zure keia eskuetan, putzara batekin... putz! Neregana etorriko da, ta berriz izango gara zorientsu edozein herriko jaixetan.

Goxo-goxo kanta egin nazu Benitoren Maria Solt. Negarrik ez. Txuri zaude ta malkoak zure kolorea kentzen dute.

Lau teilatu gainian (...)

Felix-felix bihar berriz egongo gara, txanpain apur batekin. Diru gabe, baina izarrak gurekin daude, piano baten soinuaz.

Lau teilatu gainian (...)

LAZTANA

Latzen

Eztarriko korapil sendo hau nahi nuke askatzea kantu hau bukatzean.

Ezagutu zenuen sumendia, etengabe sujauzian, itzaltzen doa orain.

Aitortzen dut: hasieran jolas soil bat zen, haragiaren gosea, mila mozkorren azkena. Barkaidazu, baina oraingo hontan ni naiz babes eske datorrena, fideltasunaren aingura. Aldatu naiz.

Zurekin pentsatzeak odola irakiten dit, ezintasuna dakarkit, zu gabe.

Inoiz ez dut sinistu amodioan, sexuaren indarrak estali dizkit begiak.

Azkenik neri ere iritsi zait sentimentu garaia, sentitzeko garaia.

Aitortzen dut: (...)

Burua galtzen hasi naiz inor ez bezela maite zaitudalako, benetan.

Benetako gauza da, maite zaitut, laztana! Lotsa gabe oihuka: maite zaitut, laztana!



LEHEN, ORAI ETA BETI

Herri kanta

Lehen, orai eta beti
ni bizi naiz penatuki,
zeren eta baitugu
amodioa berri.

Etixian eder erramu,
etxeko alabak erran du,
nahi badu ezkondu,
noiz nahi ordu du.

LEPOAN HARTU

Hitzak: Telesforo Monzon • Doinua: Pello eta Pantxoa

La-la-ra
la-la-ra la-la la-la-ra!
Lepoan hartu ta segi aurrera!
Lepoan hartu ta segi aurrera!

Gazte bat lurrean aurkitu dugu,
lore gorritz beterik kolkoa,
burdinen arteik ihesi dator
euskal gaztediaren oihua!
Mutilak, eskuak elkar gurutzatza!
Ekin ta bultza, denak batera!
Bidean anaia erortzen bazaik,
lepoan hartu ta segi aurrera!

La-la-ra (...)

Ez dugu beldurrik,
ez dugu lotsarik,
nor geran,
zer geran
aitortzeko!
Ez gaituk lapurrak,
ez eta zakurrak
kataiaz loturik ibiltzeko.
Gizonak bagera,
jo zagus aurrera,
gure herriaren jabe egin arte!
Askatasunaren hegala azpian
kabia egiten ohituak gare!
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu
otsoak eskutik hartu gabe.

La-la-ra (...)

Arrotzek ezpataz hil nahi
banaute
izituko gaituztelakoan,
zutitu ta euskaraz mintzatuko
naiz
nere hiltzailearen aurrean!
Mutilak, ez gero nigarrak egin
erortzen banaiz gau ilunean;
izar berri bat piztutzero noa
Euskal Herriko zeru gainean...
Euskal Herriko zeru gainean...
Euskal Herriko zeru gainean...

LIZARGATE

*Hitzak: Xabier Sukia eta Ibai Esoain
Doinua: Imanol Urkizu*

Gazteak Lizargatez
gera ezjakinak,
nahiz ospetsuak izan
bertako ixkinak,
zaharrentzako une
ahaztu ezinak,
han ospatzen baitziran
lehengo San Martinak.

Antonio ta Segunda
gurasa majuak,
Joxe eta Anttoni
ondorenekuak,
sekula ez ziranez
gutxi ematekuak,
gizenak zeuden oilo
eta konejuak.

Aitona idiekin
dematan gustora,
tiro platoko hotsak
belarri ondora,
korrika apustuak
aldapatik gora,
eta bertsolariak
leihotik leihora.

Dozenerdi bat kupel
atzeko fonduan,
tabladua montatuz
haien inguruan,
lizar hosto berdeak
adorno moduan,
dantza egiten zuten
ikuilu onduan.



Sakabiren soinuak
bazuen indarra,
hogeita bost urtetan
tirri eta tarra,
hango porru salda ta
fandango azkarra,
aguro betetzen zan
karrea zaharra.

Kaletik juaten zan
jendea ederkil,
ta hauek bihotz onez
ateak ireki,
ardoa edaten zuten
porroitik galanki,
jendeak gauza onak
nun dauden badaki.


Lizargateko festa
bukatzen zanian,
berriro festaren zain
modu onenian,
lizar hosto berdeak
tristura etorri zan
hiruitamabian,
autopista egiteko
bota zutenian.

**LOA, LOA***Herri kanta*

Loa, loa, txuntxurrin berde,
loa, loa, masusta.
Aita guria Gasteizen da,
ama mandoan hartuta.
Aita guria Gasteizen da
ama mandoan hartuta.
Loa, loa, txuntxurrin berde,
loa, loa, masusta.

Loa, loa, txuntxurrin berde,
loa, loa, masusta.
Aita guria abiatu da
Vitoriako ferira.
Aita guria abiatu da
Vitoriako ferira.
Loa, loa, txuntxurrin berde,
loa, loa, masusta.

Loa, loa, txuntxurrin berde,
loa, loa, masusta.
Aita guriak diru asko du,
ama bidean salduta.
Aita guriak diru asko du,
ama bidean salduta.
Loa, loa, txuntxurrin berde,
loa, loa, masusta.

**LORETXOA***Benito Lertxundi*

Mendian larrartean
aurkitzen da loretxo bat,
aurrean umetxo bat
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio:
“Umetxo, aska nazazu!
Jaio naiz libre izateko
ta ez loturik egoteko”

Umetxoak ikusirik
lorea ezin bizirik
arantzak kendu nahi dizkio,
bizi berri bat eman.

Orduan izango baitu
indarra eta kemena.
Orduan emango baitu
ugari bere fruitua.

LORIAK UDAN IHINTZA BEZELA*Bilintx / Zabaleta eta Imanol*

Loriak udan ihintza bezela
maite det dama gazte bat,
hari hainbeste nahi dionikan
ez da munduan beste bat;
inoiz edo behin pasatzen badet
ikusi gabe aste bat,
bihotz guztira banatutzen zait
halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabea,
apirileko arrosa,
izarra bezin dizdizaria,
txoria bezin airosa;
oraintxen baino gusto gehiago
nik ezin nezakeen goza;
zorianian ikusten zaitut,
nere bihotzak, hau poza!

Ez al didazu antzik ematen
nik zaitudala nahiago
ai, marinelak gau ilunian
izarrak baino gehiago.
Nere onduan zaitudalako
pozez txoraturik nago
zu ikustiak alegratu nau
triste nengoen lehenago.

Nere betiko pentsamendua
nere kontsolagarria
zu gabetanik ezin bizi naiz
esaten dizut egia.
Zu baziñake arbola eta
ni banintzake txoria
nik zu zinaken arbola hartantxe
egingo nuke kabia.



**MADDALEN***Hitzak: Joseba Tapia • Doinua: Flaco Jiménez*

Zutaz oroitzen naiz
nere Maddalen;
etxetik urrun nabil
maite zaitudan arren.

Festa bakar hartan
azaldu zinen;
dena esango dizut
maite zaitudan arren.

Salto ta algara
egin dugu aurten;
ia puskatu zaitut
maite zaitudan arren.

Baina bukatu da
seguru naiz zeren
etxetik urrun nabil
maite zaitudan arren.

MAITASUNA*Hitzak: Leon Saint-Esteben
Doinua: Pantxo Karrere*

Maitasuna, zoin behera!
Denetako kantu bera...
Alta, nere arabera,
maitasunez itoak gera...

Maitasuna biluz gorri,
haurtxo ttipi sortu berri!
Darga-darga bularrari
biziz gose ta egarri...

Maitasuna bi gazteño,
eskuz esku bide deno,
begi arai bihotz laino,
ixtan goxo bada baino...

Maitasuna puñal zorrotz,
nork derauka gutan arrotz?
bihar zaurietan bihotz
egun zorion delakotz...

Odola harro, kasailan,
xoxo pollita xirulan,
primadera firindolan,
maitasuna gurekilan!



Maitasunez gaindirekin
aita xahu, tenora jin...
erran nahi eta ezin,
tinkatu nau begiekin...

Maitasuna, su bazterra,
garrek milikan kedera,
tñirriten kantu jarjara,
negu minian primadera...

Maitasuna! O, maitasun!
zerutikako oihartzun!
bihotz guzien osasun!
Argi bizi denian ilun!
Maitasunaren botere,
errumesak jaun andere!
xixta guztietan lore!
Biziaz lotsa batere!

MAITE, MAITE*Herri kanta*

Maite, maite,
ez ni utzi hemen kaiean.
Maite, maite,
zu nere bihotzean.

Maitetxo itsasora joan da
itsasontzi batean.
Maitetxo itsasoan dago,
urrutirako bidean.

Maite, maite (...)

Maitetxo noiz etorriko da,
nere bihotza zain dago.
Maitetxo noiz etorriko da,
biok alkar bizitzeko.

Maite, maite (...)

MAITIA, NUN ZIRA?*Herri kanta*

Maitia, nun zira?
Nik ez zaitut ikusten,
ez berririk jakiten,
nurat galdu zira?
nurat galdu zira?

Hainbat kanbiatu da
zure deseina.
Hitz eman zinerautan
ez behin, bai berritan,
enia zinela!
enia zinela!

Hainbat kanbiatu da...

**MAITIA***Herri kanta / Egusenti*

Maitia nahi badezu
nerekin ezkondu
goizean lehendabizi
jeiki beharko dezu.
Maitia tristia
zu zera neria
orain zuria naiz ta
konsola zaitia.
Goizian porrusalda
eguardian azak
aixa kabitzen zaizkit
ipurdian galtzak.



**MAITIAK GALDEGIN ZAUTAN***Herri kanta*

Maitiak galdegin zautan
pollit nintzenez. (Bis)
Pollit, pollit nintzela, baina
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galdegin zautan
premu nintzenez. (Bis)
Premu, premu nintzela, baina
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galdegin zautan
boltsa banuenez. (Bis)
Boltsa, boltsa banuela, baina
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galdegin zautan
lana banuenez. (Bis)
Lana, lana banuela, baina
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa hil behar dugu
guk biok gosez. (Bis)
Gosez, gosez hil behar, baina
elkar maitez, elkar maitez.

**MARITXU, NORA ZOAZ?***Herri kanta*

Maritxu, nora zoaz
eder galant hori?
Iturrira, Bartolo,
nahi badezu etorri.

Iturrian zer dago?
Ardotxo txuria.
Biok edango degu
nahi degun guztia.

Maritxu zuregana
biltzen naizenian,
poza sentitutzen det
nere barrenian.

Bartolo, nik ere det
atsegin hartutzen
ur bila noanian
banauzu laguntzen.

Maritxu nere aurrez
ez jarri serio,
zuri dizudalako
zenbait amodio.

Par-irri gogozkoa
egiten badezu,
bihotza atseginaz
betetzen didazu!

MARKESAREN ALABA*Hitzak: Seberino Iturrino
Urretxindorrek*

Amodiozko penak
bertso berrietan,
publika ahal banitza
Euskal Herrietan.
Enteratu naiz ongi
enkargu horietan,
San Jose arratsaldeko
hiru t'erdietan.

Markesaren alaba,
interesatua,
marineruarekin
enamoratua.
Deskubritu gabarik
bere sekretua,
amodioa zeukan
barrenan sartua.



Amak esaten dio:
Juanita neria,
galdu da, diotenez,
Antonio Maria.
Nik bilatuko dizut
beste bat hobia,
maiorazgo interes
askoren jabia.

Ama ez neri esan
horrelakorikan;
ez det nik bestengana
amodiorikan.
Ezin alegra leike
nere barrenikan
komentzia ona
egonagatikana.

Penarekin leherturik
Antonio hil zan,
akonpainatu zuen
Juanitak elizan.
Maitasunik bazion,
esan dedan gisan,
geroztikan ez zuen
osasunik izan.

MATALAZ*Hitzak: Matalaz • Doinua: Benito Lertxundi*

Dolù gabe, dolù gabe,
hiltzen niz,
bizia Xiberuarendako
emaiten baitüt.

Agian, agian,
egün batez
jeikiko dira
egiazko xiberutarrak
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko,
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko.

Agian, agian (...)



**MENDIAN GORA***Hitzak: Amuriza
Imanol*

Mendian gora haritza,
ahuntzak haitzean dabilta,
itsasoaren arimak dakar
ur gainean bitsa.
Kantatu nahi dut bitzta
usteltzen ez bazait hitza,
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa banitza.
Kantatu nahi dut (...)

Euskal Herriko tristura,
soineko beltzen jostura,
txori negartiz bete da eta
umorez hustu da.
Emaidazue freskura,
ura eskutik eskura,
izarren salda urdina edanda
bizi naiz gustura.
Emaidazue freskura (...)

Euskal Herriko poeta,
kanpo santuko tronpeta,
hil-kanpaia tiraka eta
hutsari kolpeka.
Argitu ezak kopeta,
penak heuretzat gordeta,
goizero sortuz bitzta ere
hortxe zegok eta.
Argitu ezak kopeta (...)

Mundua ez da beti jai,
inoiz tristea ere bai;
baina badira mila motibo
kantatzeko alai.
Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi;
ni hiltzen naizen gauean, behintzat,
eizue lo lasai.
Bestela datozen penai (...)

MIROTZAK*Benito Lertxundi*

Nere herria
mirotz leinua
arraun orru
bihozkadaren oihua. (Bis)

Eguzki printzek
urrez jantzia
garaitz mina
daraman lehia ontzia.
Denboretan
mirotzen hatsa
Kantaurian
itsatsirik den ugatsa.

Itsas deia
argiñabarrez
datorkio mirotzari
irribarrez.
Itsas gizon
kresaltsuak
poz eta minen
uretan mirotzuak.
Etzara inoiz
bakarrik joango
mirotz gogoa da
zure arnasa izango. (Bis)

Nere herria
mirotz leinua
arraun orru
bihozkadaren oihua. (Bis)

**NERE HERRIKO
NESKATXA MAITE***Benito Lertxundi*

Nere herriko neskatxa maite,
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen,
itsaso garden, lur gozoko landare,
kresalaren usain, zero kolore;
nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.
nere bihotzaren (...)

Bihotz minberen egunsentia,
herri sufrituaren lamia,
ipuin zaharren piper eta eztia,
erreka garbien kantu bitxia;
udazken lizunez zaude jantzia,
izar zerutarren irria.
udazken lizunez (...)

Landro artetik itsas geldira
leunki zoazen txori airosa,
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainetan loratuz doa.
Goizeko ihintzetan belardi zera,
eguzkitan zilar dizdira.
Goizeko ihintzetan (...)

NERE ANDREA*Herri kanta / Egunsenti*

Nere andrea, andre ona da
auzoan hala diote, diote.
Erositako prezietan
pozikan salduko nuke.

Nere andreak kamixa zarra
beria balu ezerrez,
zazpi astian soñian dauka
erantzitzeko alperrez.

**NI NAIZ***Herri kanta / Egunsenti*

Ni naiz emakume bat
arrai saltzailea, bai, bai!
Marinelak itsasotik
dakarren gutzia,
nahiz legatz ta nahiz bixigu,
atun sardiñikan,
liberdi bat txipiroia,
nahiz aingirikan,
itsas haundirik, haundiagorik
harrapatzen banau azpian
Zart!
gaude galdurik.





NIGARRA BEGIAN

Hitzak: Xalbador

Doinua: Benito Lertxundi

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian,
guretik deus ez duen hizkuntza mihian,
sofritzen egoiten naiz horien erdian,
gutaz ahalgetuta, nigarra begian.

Nehoiz etzeraukula, nik ez dut etsiko,
gure kontzientzia atzartzen hasiko;
egungo balentriak ez baitu betiko
odolaren mintzoa isilaraziko.

Oi, entzule maite, otoi barkamendu,
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!
jostetako gogoa dautate kendu,
aunitz maite duenak aunitz sofritzen du.

NIREKIN


Gozategi

Emoixtaxux muxutxuek,
maitie,
hartuixu guruxun
guztixe,
eroaixu bixotz
tristie
zure bixotzarekin.

Emostazu porrutxue,
sorgiñe,
ahatetxu baten
berdiñe,
begitxu gorrixen
samiñe
sendatuixu nirekin.

Oinak hotz gabien, berbak irratixen,
bero pixka bat gure neuke;
berbaixu bajutxu, eskue helduixu,
ez utzi laztanik eiteke.

Gero esnatzien lagaixu etxien
zure marrubi usaintsue,
ta ez eizu pentsa ez dela erreza
gauza politteke pentsatzie.



OI AMA ESKUAL HERRI

Herri kanta • Benito Lertxundi

Anaia etxen da ezküntu,
bükatü niz oain joaitera;
ene opilaren egitera
Pariserat banüazü.

Oi ama Eskual Herri goxual
zütandik urrun triste banüa.
Adios gaixo etxen dena,
adios Xiberua. (Bis)

Pariseko bizitzia
lan kostüzüriaz bagiazü,
bena berantzen zütadazü
zure berriz ikustia.

Oi ama Eskual Herri goxua! (...)



ORAINDAINEKO INULARRETAN

Herri kanta

Oraindaineko inularretan
maite nuen itsasoa;
arraiz beterik azaldutzean
txalupa muga lepoan.
Arrantzalea nuen senarra,
arrantzalea gaixoa,
itsas gaizto horrek errez iruntzi,
gaur diot nik gorrotoa.

Alabatxoa mendi gainetik
aitatxo noiz etorriko
itsasoari begira dago,
eguna argitu dulako.
Nik nola esan itoa dala,
galdu zaigula betiko?
ta alabatxoa zai ta zai dago
eguna argitu duneko.

Bedeinkatzen det Jaungoiko ona.
Bedeinkatzen zure eskua,
bakar-bakarrik eskatzen dizut
senarrarekin zerua.
Zeru goietan bildu gaitezen
beheko familia osua.
Ongi zaude ta noiz ikusiko
aita zain alabatxoa.





ORIA IBAIA

Hitzak eta doinua: Benito Lertxundi

Gure bazterrak bustitzen dituzun ibaia, aspaldian ustelkeriz zikindurik zatozena.

Zigortzetik utzi zaituen une beretik ikusten dut, oraindik ere bizi nahia borondatea eta maitasuna, igeri dabilzala zure haunditasunean.

Zugan daramakiten pozoiketara ez da nahikoa zure hats bizikorra itotzeko.

Zure menperatzaileei dena barkatuz bezala, osasuntsu ageri zara eta oraindik gazia den zure gatza eskertzen dizute arraitxoek.

ORIOKO ZULUAN

Herri kanta

Orioko zuluan izurdiak purpaka. (Bis)

Ke ta ke, talaierua, ke ta ke, talaierua, ke ta ke, talaierua, baporak irten arte.

Baporak irten eta izurdiak purpaka. (Bis)

Lehenbizi oriotarrak, lehenbizi oriotarrak,

Nik zure barnetaraino murgildu nahi dut gaur zure maitasunean igeri egin eta hantxe zure bustitasunean abiatuko naiz heriotza menperatzeko duzun sekretoaren bila.

Eta han, zure bihotzaren erdian nere ahalmen guztiak, txertoaren gisa, isuri nahi nituzke etsaiaren atzapar beltza eror ez dakizun, edertasun guztien leku izan nahi duzunez gero hala izan zaitezten, bizitzaren kantu ibaia, bizitzaren kantu zaren Oria ibaia.

lehenbizi oriotarrak, sarea botatzeko.

Sareak bota eta izurdiak purpaka. (Bis)

Bota eta, ezin atrapa, bota eta, ezin atrapa, bota eta, ezin atrapa, Txo rediez! txikotetik eskapa. (Bis)

Egia da, egia da, nik ikusia da. (Bis)



OSTATUKO NESKATXAREN KOPLAK

*Hitzak: Joxe Austin Arrieta
Doinua: Oskorri*

Isildu zaigu eguna, larre ondoan asuna, zure gomuta saminagoa, bihotz nereko kutuna.

Eperra garitzen kanta, ehizeko zakurra zaunka, teilatu gorriari dario nigar eta odol tanta.

Belar gainean bildotsa, haizeak leun du hotsa, etsai-urratsen zarata hitsa, gorrotoaren ostotsa.

Oilarrak harro kalparra, zezena ez da koldarra, Espainia aldean preso daukate nire senargai zangarra.

Eder basoan haritza, pagoa lerdan, bortitza, bazter hauetan zenbait jaunskilok errez jan ohi du bere hitza.

Ibaia dator uholde, haizea uraren golde, euskal andra-gizonen odola ez da ixuriko debalde.



Sagarra daude ustelak, mikaztu dira upelak, lehengo aldean orain gara gu abertzale txit epelak.

Udako sasoiak uzta, larrean eder irusta, nire bularra, zuk laztan ezik, ximelduriko masusta.

Artoa zaigu zoritu, sagarrondoak gorritu, zu noiz itzuli itxaropena ez zait gogotik akitu.

Euriak mardul dario, elurra dirudi liho, nire bihotzak ez diezaizuke sekula esan adio.

Usoak dira igaro, basoak dirau oparo, nire magal gozoa dukezu zatozkenean abaro.

Zelaiak badu hesia, ereina dugu hazia, nire erraietan ernatuko da askazi ezin-hezia.



PASAIAKO HERRITIK

Xenpelar

Pasaiaiko herritik dator notizia zezen bat izan dala jentioz bizia, kantatutzero nua bistan ikusia alegratzeko triste dagoen guzia.

Santiago eguna Pasaian seinale, ailegatu eztanak egin beza galde, hasieran jendia zezenaren alde, azkenean etziran arrimatu zale.

Gure Pasaia beti sonatua dago, errapin gabe ezta urte bat igaro, hurrengoan jarriko dituztela nago barrera estuago edo zezena handiago.

Torillotik atera zuten lehendabizi bei zahar bat gidaria bandera ta guzi, harrapatzen zuena purrukatzen hasi azkenian kanpora plazatik igesi.

Hiru komertzianta plazatik kanpoan poxpolo ta barkillo labaina tratuan, pareta egon arren hamar oin altuan panparroi pasatu zen putzura saltuan.

Hoiak horrela eta gehiago ere bai lurrian ziraldoka egin zuten lasai, ezkonberriak eta zenbait dama galai zezenaren mendian etzuten jarri nahi.

Plazatik itsasora salta da igeri adarrak besterikan etzuen ageri, bakerua begira bere zezenari eserita jan ditu hiru libra ogi.

PELLO JOSEPE

Herri kanta

Pello Josepe tabernan dala haurra jaio da Larraunen. Etxera joan da esan omen du: ez da neria izanen, beraren amak topa dezala haur horrek aita zein duen.

Hau pena eta pesadunbria! Senarrak haurra ukatu.

Pello Josepe, bihotz neria, haur horrek aita zu zaitu; haur horrentzako beste jaberik ezin nezake topatu.



PRIMA EIJERRA

Herri kanta

Benito Lertxundi

Prima eijerra, zütan fidatürik, anitx bagira, oro tronpatürik. Enia zirenez, erraizu bai ala ez, bestela, banua desertiala, nigarrez ürtzera.

Desertiala juan nahi bazira, arren, zuaza! oi, bona, berhala! Etzitalia jin, hartzara, nigana, bestela, gogua dolütüren zaizü, amoros gaixual!

SALAMANKARA

Herri kanta

Aita Jainkoak egin banindu zeruetako giltzari azken orduan jakingo nuke atea nori ireki. Lehenengo aitari, gero amari, gero anai-arrebari, ta azken orduan ixil-ixilik, neure maite politari.

Gazte-gazterik aitak eta amak praille ninduen nonbratu, estudioak ikasitzera Salamankara bialdu. Salamankara nindoalarik bidean nuen pentsatu estudianta tunante baino hobe nuela ezkondu.



Ezkondu nintzan bai ni ezkondu, baita ere sarri damutu, praka beltzetan hari zuria sekula ez zait faltatu.

Praka beltzetan hari zuria txamarra beso gabia, horregatikan deitzen didate arlote mixerablia.

SAN SIMON ETA SAN JUDA

Herri kanta

Xabier Lete

San Simon eta San Juda joan zen uda eta negua heldu da. (Bis)

Ez baletor, hobe, bizi gara pobre eremu latz honetan ez gara hain onak benetan.

Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak, ez dugu abererik, ez gara aberatsak, euskara guk dugu, gu gara euskaldunak, euskara guk dugu, gu gara euskaldunak.



**SEHASKA KANTA***Xabier Lete*

Amaren bularra
haurraren janari,
haurraren negarra
beti hunkigarri;
baratz honen erdian
goseak nago ni,
zure bular laztanen
antsiz ta egarriz.

Zure bular politak
zerrien jostailu,
edertasunik kontuz
gorderik behar du;
zaude isilik, haurral!
ez egin negarrik,
munduak ez du-eta
malkoen beharrik.

SORTERRIKO KOBLAK*Hitzak: Joseba Sarrionaindia
Doinua: Mikel Laboa*

Oihaneko pagoak blai,
aideratuz hiru elai.
Ostadarren harian dira
haurak pausatu nahi.

Larrosak dira gorriak
edo, bestela, xuriak.
Hagitzez ederragoak dira
neskatilaren irriak.

Maldan behera urratsa,
betiko bidean latsa.
Hodei ilunak gaua belzten du;
udazkena da, ez bedatsa.

Usapalak ostantzean,
huts bat badut bihotzean.
Zatoz, maitea, gure etxera,
dostatzera arratsean.

Handitzen zeranean
ikusiko duzu
isilik egoteak
zenbat balio dun;
jarrai zure bidetik,
hobe da horrela,
gauza denen gainetik,
haizea bezala.

Amaren bularra
haurraren janari,
aterpe samur hontan
lo hartu nahi dut nik.

Eder basoan haritza,
haran aldean garitza.
Fruitu antzera ontzen da hemen
gizasemeen bizitza.

Sagar gorriak dilindan,
damea dago ganbaran,
maite laztanez hartzeko eta
elkartzeko ohantzean.

Isiltasuna abailtzen da
luma galdu bat bezala,
begiak uso, mingaina arana;
zure bihotza, ene aingura.

Urrun gau hontzak uluka,
zakur deslaiak zaunkaka.
Mende oso bat iraganen dut
zure ondoan koblaka.

TARRABILLON*Hitzak: Fabian Loidi
Doinua: Imanol Urkizu*

Zabala dut ur-gaina,
mugarik ez inon,
denak mendeko ditut,
ni naiz Tarrabillon!

Kantauria goibel da
erronka darion,
zantzu txarrak ez dakar
inondik berri on.
Horra Sabelgorriak
jaupaka zer dion:
Zabala dut ur-gaina,
mugarik ez inon,
denak mendeko ditut,
ni naiz Tarrabillon.

Pipadun txapelaundi,
gerrian ezpata,
jaun-da-jabe or dabil
euskaldun pirata.
Arroskoaren lege
indarra dala ta,
joaldian berekin
darama enbata.
Jaun-da-jabe or dabil
euskaldun pirata.

Zabala dut ur-gaina (...)

Bere ontziek dute
lapur-egitura,
gau ta egun dabilela
jasorik aingura;
etsaiak jarri ditu
igesi portura,
lau haizetan odolduz
itsasoko ura.
Bizia maite duna
etzaio ingura.

Zelatariak jo du
biziki turuta:
Frantsesak dakarrela
Orioko ruta...!
Haur-emazteki denak
lehenbailehen izkuta...!
Oihal-betean eta
tximistak hartuta,

Frantsesak dakarrela
Orioko ruta...!

Zabala dut ur-gaina (...)

Peru Bergante da bat,
Iturain bestea,
oriotarrek duten
kapitain pare.
Urez eta legorrez
bildu da jendea,
barran, hil edo bizi
jotzeko pelea.
Zoritxarra salatzen
Din-dan, joalea.

Sarrera katez itxi
zehir mila soka,
han trabatzen ez danak
joko du arroka.
Katapultan harriak
su-tunpa orroka.
Batean brankaz eta
bestean alboka,
ur-da-legorrez egin
diote borroka.

Zabala dut ur-gaina (...)

Ontzi kokatuari
eraso albora,
dantzatuaz ezpata,
hainbatsu aizkora;
saihetsa zulatuaz
tunpaka polbora,
korsario bat sutan
dijoa ondora,
garrak eragin dio
oihaletan gora.

Igesian okerka
doa bergantina,
Gaskoin itsasoaren
ontzi erregina,
itsas-burrurakako
bereizki egina.
Geroztik nabari da
mendekari-grina;
Baionakoek ezin
ahaztu dute mina.

Zabala dut ur-gaina (...)

**TIRIKI TRAUKI***Gorka Knor*

Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira bi...

Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira bi...

Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira bi...

Tiriki-trauki
hiru ta lau dira zazpi,
xurruxumurru
bat batean dira urrun,
tiriki-trauki
ezker eskubi
bien artean dago zubi,
hots bare-bare
hor leiho sare
hiru ta lau dira
bat, bat, bat, bat
la, la, ra, la, ra, la...

TRISTE BIZI NAIZ ETA*Bilintx*

Triste bizi naiz eta
hilko banintz hobe,
badaukat bihotzian
hainbat atsekabe.
Maite bat maitatzen det
baina haren jabe
sekula izateko
esperantzik gabe.
Maite bat maitatzen det (...)

Bihotz baten lekuan
mila banituzke,
zuretako maitia
izango lirake.
Baina milan lekuan
bat besterik ez det;
hartazazu, ba, maitia
bat hau mila bider.
Baina milan lekuan (...)

Nere maite polita
nola zera bizi?
Zortzi egun honetan
etzaitut ikusi.
Badakit zabiltzala
nigandik ihesi,
ez didazu ematen
atsekabe gutxi.
Badakit zabiltzala (...)

**TXAKURRAREN PARTIA***Txomin Artola*

Gu gazte ginadela txalupa guztiak
zakurtxo bat ohi zuten ontzi barrenian;
begi erne, abila, ez zan zaunkaria,
ihes zihoan arraia harrapatzailea.

Seme, esango dizut nola gertatzen zan:
puñitutako arraia, suelto batzuetan;
legatzak ospa, ihes, txakurra jautzen zan
ta bet-betan arraia hartzen zun hortzetan.

Lana horren saria 'txakurren partia'
deitzen genion guztiok, ongi merezia;
maite-maitea zan txakur ehiztaria,
txalupa betetzen zun, anima gabia.

Unea etorri da zuri kontatzeko
zer nolako txakurra zan gure Txuriko.
Uhin izugarriak ez zun izutuko,
arraia utzi baino, lehenago itoko.

Goiz itsusi batian, ez naiz, ez, ahaztuko,
bere lana beteaz, jauzi zan Txuriko;
baga handi artian, ehiza ez utziko,
legatz handi batekin ito zan betiko.

TXANTXIBIRI*Herri kanta*

Txantxibiri, txantxibiri, gabiltzanien
Elorrioko kallian
hamalau atso tronpeta jotzen
zazpi astoren gainian.
Astoak ziran txiki-txikiak
atsoak, berriz, kristonak!
Nola demontre konpontzen ziran
zazpi astoren gainian.

Saltzen, saltzen, txakur-txiki baten karamelua
'esta muy bien' esaten du konfiteruak.
Cuando vamos a Otxandiano, Andra Mari egunian,
Mekaguenlamar!
Comeremos txokolate, sonbreruaren gainian.



**TXUKURRUN***Herri kanta*

Txukurrun, txukurrun
ez neri ikutu
aita ganbaran da ta
sentituko gaitu.
Aita ganbaran da ta
ama sukaldean
neska-mutilak berriz
eskailera azpian.

Txukurruku, txukurruku.

**TXURI-URDIN***Herri kanta*

Txuri-urdin,
txuri-urdin maitea.
Txuri-urdin,
txuri-urdin aurrera.
Beti, beti maite,
maite-maitea,
Donostia, donostiarra.
Aurrera mutilak!
Aurrera Gipuzkoa!
Aurrera txuri-urdinak!
Gazte, gazte, gazte,
gazte, gaztedi,
gaztedi aupa!
Aupa mutilak!
Gazte, gazte, gazte,
gazte, gaztedi,
gaztedi txuri-urdiña!

**UME EDER BAT***Iparragirre*

Ume eder bat ikusi nuen
Donostiako kalean,
hitz erditxo bat hari esan gabe
nola pasatu parean?
Gorputza zuen liraina eta
oinak zebiltzen airean.
Politagorik ez det ikusi
nere begien aurrean.

Aingeru zuri, paregabea,
Euskal Herriko alaba,
usterik gabe zugana beti
nere bihotzak narama;
ikusi nahian beti hor nabil,
nere maitia, hau lana!
Zoraturikan hemen naukazu
beti pentsatzen zugana.

Galai gazteak galdetzen dute:
Aingeru hori non dago?
Nere maitea nola deitzen dan
ez du inortxok jakingo.
Ez berak ere, ez luke nahiko,
konfiantza horretan nago.
Amoriodun bihotz hoberik
Euskal Herrian ez dago.

**XALBADORREN
HERIOTZEAN***Xabier Lete*

Adiskide bat bazen
orotan bihozbera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.
Plazetako kantari,
bakardadez josia,
hitzen lihoa iruten,
bere barnean irauten,
oinazez ikasia... ikasia.

Non hago, zer larretan,
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana? (Bis)

Hesia urraturik
libratu huen kanta
lotura guztietatik,
gorputzaren mugetatik,
aske sentitu nahirik.
Azken hatsa huela
bertsorik sakonena,
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oihurik bortitzena... bortitzena.

Non hago, zer larretan,
Urepeleko artzaina,
mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana? (Bis)

**ZAZPI LAGUNTZO
GERA***Herri kanta*

Zazpi laguntzo gera
kuadrilla batian,
ondo ezautzen gaituzte
Orioko herrian,
neska gaztiak diote
ez gaitula bihar,
guk holako neskarik, txin-txin,
ez degula bihar.

Txin-txin, txin-txin,
diruaren hotsa
harrek ematen digu, maitia,
bihotzian poza. (Bis)

Neska horrek esateio
bere lagunari
etzaiola gustatzen
mariñel pobrerik.
Horrei etorriko zaio
markesaren seme,
askotan holakua, txin-txin,
gelditzen da gabe.

Txin-txin, txin-txin,
diruaren hotsa
harrek ematen digu, maitia,
bihotzian poza. (Bis)





ZENBAIT BERTSO XELEBRE

*Hitzak: Bernardo Atxaga
Doinua: Ruper Ordorika*

Batzuetan jartzen naiz
etxetik begira,
begiak jausten zaizkit
leihotik behera;
lurrean salto eginez,
kanikak balira,
gaua etorri arte
dibertitzen dira.

Ikusmira galduta,
asper naizenean,
gogoa ipintzen dut
etorkizunean,
zer egin behar dudan
euskaldun artean
suizidatzen ez banaiz
datorren urtean.

Estraineiko gauza
zeharo alpertu,
jatearekin soilik
nor da gaur kontentu?
Asmatu behar ditut
makina bat santu,
egutegia festaz
erabat gorritu.


Lagunekin paratu
txokolate jatiak,
saku-karrerak eta
bidaia handiak.
Ezagutu nahi ditut
enpatxu eztiak,
Konstantinopla eta
Parisko zubiak.

Apaipei sotanak
dizkiet kenduko,
itsasontzi piraten
banderak egiteko.
Tiobibo batetan
denok gara igoko,
zintzoak garelako
ez dugu ordainduko.

Musika joko dugu
alde guztietan,
batek bonboan eta
besteak tronpetan.
Biluzirik bainatuz
ilargi-argitan
maitia bilatuko
dugu ur azpitan.

Biziko gara horrela
hirurehun bat urtez,
banku guztietako
jabetzaren kaltez,
sufirimendua eta
negarraren ordez,
ferra eta farrandaz
historia betez.

Ta horrelakorik inoiz
gerta ez baledi,
izan gintezke arrano,
batzuetan txori;
txit ondo hitz eginez,
eskuetan geldi,
borreroak baditu
milaka aurpegi.



ZENBAT GERA?

Benito Lertxundi

Zenbat gera? lau, bat,
hiru, bost, zazpi (Bis)

Zer egin degu?
Ezer ez.

Zer egiten degu?
Alkar jo.

Zer egingo degu?
Alkar hil? (Bis)

Gure asmoak, esperantzak,
herria, askatasuna,
justizia, pakea,
egia, maitasuna,
mitoak, hitz hutsak.

Zenbat gera? lau, bat,
hiru, bost, zazpi (Bis)

Zer egin degu?
Ezer ez.

Zer egiten degu?
Alkar jo.

Zer egingo degu?
Alkar hil? (BIS)

Hori ez! Hori ez!
Hori ez! Hori ez!
Hori ez! Hori ez!

ZIBILEK ESAN NAUTE

Iparragirre

Zibilek esan naute,
biziro, egoki,
Tolosan behar dala
gauza erabaki;
giltzapian sartu naute,
poliki-poliki:
negar egingo luke
nere amak baleki.

Jesus tribunalian
zutenian sartu,
etzion Pilatosek
kulparik bilatu;
nigan ere arkitu ez arren,
ez naute barkatu;
zergatik ez dituzte
eskuak garbitu?

Kartzelatik atera
fiskalen etxera,
abisatu zidaten
joateko berehala.
Ez etortzeko gehiago
probintzi honetara;
orduan hartu nuen
Santander aldera.





ZUK ZER DEZU, ARANTZAZU?

Herri kanta

Zuk zer dezu Arantzazu?
amets kabi otoiitz leku
Euskal Herria oso-osorik kantari
dijoakizu
Izena bera Arantzazu
kanta ederrena dezu
hitz bakar hori mintza orduko
kantari jartzen gaituzu.
Izen hori Arantzazu
mintzatzen ezin aspertu
ama izenak duen goxoa
zuk euskaldunentzat dezu
zu Arantzazu
lehen puntua zaitugu
ta Euskal Herria zure bertsoa
osatzen dihoakizu.



ZURE BEGIEK

Herri kanta • Doinua: Mikel Laboa

Zure begiek
ene maitia
badute biek
dir-dir eztia.

Zeruko lore
miresgarriak
izarren pare,
zoragarriak.

Gazte-gaztia
zira oraino
egun guztia
nago zuri so.

Zure begiek
zoratzen naute
eta guztiek
nahi luzkete.

Gaua delarik
mundurat jausten
Jauna zerutik
da urrikaltzen.

Zure begien
gozoño hori
egon dadien
eder ta garbi.

Ene nahia,
zinez handia,
zu izaitia
nere maitia.





GABON KANTAK





ABENDUKO HILAREN

Abenduko hilaren hogeita lauean
Jesus gure jabea jaio da gauean.
Gu ipintzeagatik izate hobean,
bihotzak zuzenduta zerura bidean,
Jaungoikoa estalpe zokoan jaiotzen.



AI, HAU GAUAREN ZORAGARRIA

Ai, hau gauaren zoragarria!
Jesus jaio da Belenen.
Herririk herri bila gabiltza,
bila gabiltza beraren

Aingeruak kanta,
artzai onak dantza,
guztiok alabantza
zuri zor dizugu.

Astoak a! Idiak mu!
Atseginik badegu.

Hartu makilak eta
jantzi abarkak,
artzainak joan ziraden
Jesusen bila.

Ai! Zer atsegina den
dantzan jende guztia,
salto brinko eginik
danak joan ziran.

ALAKEN, ALAKEN

Alaken, alaken, alaken, alaken,
ala pikula tun paire,
errespun dela pikula tunpa,
Jesus Maria Jainkoa zen. (Bis)

Adiskideok, ikusi duzue
zelai horietan artzaiak.

Artzai txiki, artzai handi,
artzai mutur leunak. (Bis)

Alaken, alaken...



ARIN-ARIN, KRISTAUAK

Arin-arin, kristauak; arin, bai, Belena.
Jesus adoratzera ahal den lasterrera. (Bis)



Zer gertatzen ote da Belengo herrian?
Gure Jesus jaio da estalpe batean.
Haruntz-honuntz, lasterka, artzaiak mendian
elkar bilatzen dira ahalegin guztian.

Arin-arin, kristauak...

ARTZAIAK DATOZ

Artzaiak datoz Belenera
Jesus Haurtxoa agurtzera,
txiribiribi txalo txalo pin,
Peru, Kattalin, Pello eta Txomin.
Txiribiribi gu ere haiekin,
txiribiribi txilibitu danbolin.
Tori ogia eta gazta,
intxaur, eztia ta arrautza,
tori txikle ta txupatxus,
dena zureztat, zureko Haurtxoa.



ATOZTE KRISTAUAK

Atozte kristauak,
bihotza pozturik,
atozte guztiok
Belenera,
jaio dan gure
Jesus ikustera.
Jauna gurtu dezagun,
Jauna gurtu dezagun,
Jauna gurtu dezagun,
Jauna gurtu dezagun,
auspezturik

Ardiak utzita
datoz artzai onak
zerutik deituak
estalpera.
Goazen gu ere
berekina batera.
Jauna gurtu dezagun,
Jauna gurtu dezagun,
Jauna gurtu dezagun,
Jauna gurtu dezagun,
auspezturik.





AUPA GOAZEN

Aupa goazen Gabon eskian,
ohitura zaharra da Euskal Herrian.

Aupa goazen Gabon eskian
Jesus Haurraren izenian.

Tralarala, larala, larala...

Bart Belenen, bart Belenen
jaio da Jesus Nazaren. (Bis)



BIHOTZ SUTUAKIN

Bihotz sutuakin
Belena goazen,
aingerua dago
hara gu deitzen. (Bis)

Gabaren erdian, zeru garbian,
eguzki berri bat agertu da bart.
Ama Birjina zan zeru garbia,
eguzkia Jesus jaio berria.

Ardiak utzita datoz artzaiak,
zerutik deituak Jesusengana.
Goazen, bai, gu ere berarengana,
adora dezagun Haur txit laztana.



BIRJINA MAITE

Birjina maite, lotan dago
zure seme laztana,
sehaskatxoan ipini zazu
gure bihotzen kuttuna.

Ongi bai ongi igaro ditzan
gauak eta egunak,
poliki-poliki eragiozu
egin dezan lo ona. (Bis)



BIZARZURI

Gabonak, Gabonak!
Hau zoriona!
Bertsotan ari zaigu
gaur aitona,
ja, ja, ja! barrezka
dago amona.

Bizarzuri, Bizarzuri!
Mendi gaina zuri-zuri,
zoriona, zoriona!
Bertan ditugu Gabonak.

Tximini zulotik
nor bait sartu da:
mutur beltz, begi gorri...
Aiba lio!
Olentzero dela,
halaxe dio.

Bizarzuri, Bizarzuri!
Mendi gaina zuri-zuri,
zoriona, zoriona!
Bertan ditugu Gabonak.

Laster urte berri,
gaur Olentzero!
Alperrontzi, mozkor
eta triperero;
hor dago sutondoan,
bero-bero.

Bizarzuri, Bizarzuri!
Mendi gaina zuri-zuri,
zoriona, zoriona!
Bertan ditugu Gabonak.

Tranka-tranka, trostan,
hiru errege;
hirurak datoz
jator eta legez:
panpin politak ekarri,
mesedez.

Bizarzuri, Bizarzuri!
Mendi gaina zuri-zuri,
zoriona, zoriona!
Bertan ditugu Gabonak.



DIN DAN DON

Din dan don! Din dan don!
Eguberri on!
Zorion, zorion!
Gabonak, din dan don!
Din dan don! Din dan don!
Eguberri on!
Zorion, zorion! Gabonak Gabon!

Izar bat hasi da dizdizka zeruan,
berri ona zabaltzen ari zaigu munduan.
Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,
askatxo batean dago, lastoen gainean.


Din dan don! ...

Aingeruak kanta, artzai onak dantza,
Jainkoaren jaiotzan Pakea eta Aintza!
Astoak, aja-ja, idiak muu-mu!
Estalpe zaharrean kantuan ari zaizkigu.

Din dan don! ...

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,
izarrari jarraika biak datoz arinka.
Menditik barrena, Hautxoarengana,
artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don...



DIOS TE SALVE

Hor goian eliza,
kanpaiak jotzen dabilta,
eliz hontako eskaileteran
uxokumiak dabilta.

Dios te salve bakailo jale,
sei ta bost dira hamaika,
odolkirikan ez baldin bada
berdin zaigula lukainka. (Bis)

Hor goian langetan
eperra dator kantetan
etxe hontako nagusi jaunak
kaka egin dula galtzetan.

Ate honen txulua,
ezin kabitu besua,
txulo hontatik nik ikusten det
txorizo mutur goxua.

Dios te salve ...

Hor goian harria,
haren gainean txoria,
etxe hontatik esperatzen det
errial biko txuria.

Hor goian iturri,
ura pir-pir-pir etorri,
etxe hontako etxekoandreak
Ama Birjina dirudi.

Dios te salve ...

Eman behar baden eman-
tzan,
bestela ezetz esantzan,
Maria muxar alubizartxo
hiri erantzun behartzain.

Dios te salve ...

ELURRA TEILATUAN

Elurra teilatuan,
zakua lepoan,
ibili beharko degu
aurtengo neguan.

Riau, riau, riau
riaukataplau...

Hau dek umoria,
utzi alde batera
euskaldun jendia.

Riau, riau, riau
riaukataplau...

Hau dek umoria,
utzi alde batera
euskaldun jendia.





ERREGEAK DATOZ

Hiru errege ziren mago jakintsuak, Jesus adoratzera Belendik sortuak.

Meltxor eta Gaspar bestea Baltasar, insentsua eta mirra eskeini zutenak. (Bis)

Haur eder baten bila gabiltza zorutzen, ta izarrak esan digu galdetzeko hemen.



Jangoikoaren herri maite Jerusalem, esan zaiguzu laister Jesus non jaio den. (Bis)

Artzai buru txuri bi Antton eta Peru Belengo estalpera etorri zaizkigu.

Sartu dira barrena, Manueltxongana, eskeintza egin diote arkumetxo bana (Bis)

GABON GAUA

Gabon gaua, Jesus haurra datorkigu gugana. Poztu gaitezen elkarrekin abestu dezagun aingeruekin, aintza zeruan eta pakea hemen gurekin.

Haurtxo maite, nola zaude aska zahar hortan ta hain hotzez? Ez al zera, ba, zu errege, zeru ta lurren jaun ta jabe? Ai, hau zer miraria gaur gerta da Belenen!

GAUEKO IZAR

Gaueko izar argitsuenak piztutzeakin batera, Haurtxo eder bat etorri zaigu gaur arratsean etxera.

Ordu ezkerro etxeko denak poztu ta zorutzen gera, Haurra dalako zerutik honuntz datorren Jainko berbera.

Alai ta pozik kanta dezagun Haurtxo honen etorrera, gure iluna alaitutzeko jaio dan argi ederra.

Gaurtik aurrera atzerri hontan zoriontsuak gera, Haurra dalako zerutik honuntz datorren Jainko berbera.

GORA, GORA

Gora, gora, gora, hots egin, alaitasun ta txaloeekin, guztiak poztu eragin.

Agertu da Jaungoikoa, Mariagandik sortua. Agertu da Jaungoikoa, Mariagandik sortua.

Gazteak, arren, abestu. Jaio berria goraldtu, aho batez aupatu.

Agertu da Jaungoikoa, Mariagandik sortua. Agertu da Jaungoikoa, Mariagandik sortua.



HATOR, HATOR

Hator, hator mutil etxera gaztaina ximelak jatera, Gabon Gaua ospatutzeko aitaren ta amaren onduan, ikusiko dek aita parrezka amaren poz-atseginez.

Eragiok, mutil, aurreko danbolin horri, gaztainak erre artian, gaztainak erre artian, txipli txapla, pun!

Gabon Gaua pozik igaro dezagun.



HAURTXO MAITE

Haurtxo maite, nola zaude sehaskan negarrez? Atoz, bai, nire bihotzera. Atoz, bai, lo-lo egitera. Abesti maitalez. Abesti maitalez.

Eguberri egun argi, zeruan kantari. Aintza zeru goian Aitari, pakea lurrean gizonari, eskerrak amari, eskerrak amari.





HIRU ERREGE

Trakatran, trakatran
hiru errege.
trakatran, trakatran
Belenera.
Belenen jaio dan
Jesus haurtxoa
trakatran, trakatran
agurtzera.



Meltxorreak trakatran
zaldia beltza,
Gasparrek trakatran
zaldi gorri.
Trakatran trakatan
Baltasar zaharrak
zaldia trakatran
txuri-txuri.



HORRA, MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi, begira horri,
gurekin nahi duela Belena etorri,
gurekin nahi badezu Belena etorri,
atera beharko dezu gona zahar hori.

Atoz, atoz, zure bila nenbilen ni,
atoz, atoz, zure bila nenbilen ni,
atoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaio dan
Haurtxo eder hori,
Haurtxo eder hori.



ISILIK ISO

Isilik iso, isilik iso,
Josu Haurtxoa lotan dago,
lo, isilik iso.
Irripar goxo ezpainetan,
aingeruekin ametsetan,
poz-pozik dago Gabonetan.

JOXE, EKARRI ZAZU

Joxe, ekarri zazu
sortatxo bat egur,
Haurra hotzak dago ta
berotu dezagun.
Ez da, ez, hotzak hilko,
Birjina Maria,
berotzen hasi zaizka
astoa ta idia.

Ai, hau gabaren zoragarria
Jesus jaio da Belenen,
etxe honetan sartu ote dan
bila gabiltza beraren.



KANPAIAK JAIETAN

Kanpaiak jaietan,
dindan dindan dindindan,
izarrak argitan,
Gabon gauetan.

Mara-mara elurra,
txuri-txuri gailurrak.
Jainkoa jaio da,
poztu da lurra.

Kanta bat entzun da
gauetz mendialdean,
Zorion! Zorion!
Guztioi Gabon!

Belengo estalpean,
sehaskatxo batean,
lo dago Haurtxoa,
gure Jainkoa.



KUKURRUKU

Oilarrak kanta kantari;
kukurruku, kukurruku,
kalejiran dabilta:
kukurruku, kurruku.

Eguarri gaua ospatzen,
kukurruku, kukurruku;
Jesus jaio da Belenen,
kukurruku, kurruku.

KANTA ALELUIA

Kanta-kantari daude zeruan,
kanta-kantari aingeruak. (Bis)

Kanta aleluia,
gaur aleluia,
beti aleluia,
kanta aleluia! (Bis)

Epel-epel sukalde giroan,
aitaren eta amaren ondoan. (Bis)

Kanta aleluia,
gaur aleluia,
beti aleluia,
kanta aleluia! (Bis)

Gaur jaio zaigu Jesus Haurtxoa,
goratu dezagun Jainkoa. (Bis)

Kanta aleluia,
gaur aleluia,
beti aleluia,
kanta aleluia! (Bis)





MENDI ALDETIK DATOZ

Mendi aldetik datoz,
artzainak, artzainak,
bildots bana harturik
bizkar gainean.

Gabon gauean kanta,
kanta aleluia,
kanta aleluia,
aleluia,
Gabon gauean kanta,
kanta aleluia, gauean.

Haur txiki bat jaio da,
Belenen, Belenen
guztion Jainkoa da,
poztu gaitezen.

Gabon gauean...



MESIAS SARRITAN

Mesias sarritan agindu zana
aingeru artian dator gugana, (Bis)
gloria zeruan, pakia hemen,
kantari aingeruak daude Belenen. (Bis)

Belengo portalian, negu gogorrian,
jaio da gure Jesus askatxo batian;
estalki gabe dago abere artian
gutziz ahaltsua dana zeru ta lurrian.

Hantxen dago gure Jesus.
Hantxen dago, bai.
Haurtxo txikia askan dago.
Amak esan dio lo egiteko,
baina Haurtxoak, begiekin,
esaten dio: 'Ama, ezin'. (Bis)

OI, BETHLEEM

Oi, Bethleem, etorri da zure garaia,
oi, Bethleem.
Ongi baitu distirutzen,
zugandik heldu den argiak,
bete ditu bazter guztiak.
Oi, Bethleem. oi, Bethleem.

Artaiekin heldu naiz zugana lehiaz,
artzaiekin.
Berak bezela naiz egin,
adoratzen zaitut Mesias,
eta maite bihotz guztiaz.
Artaiekin. artzaiekin.

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentsioarekin
ikatz egitera.
Aditu duenian
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
berri ematera.



Horra! Horra!
Gure Olentzero!
Pipa hortzetan dula
eserita dago
kapoiak ere baitu
arraultzatxuakin
bihar meriendatzeko
botila ardoakin.

Olentzero guria
ezin degu ase
bakarrik jan dizkigu
hamar txerri gazte,
saiheski ta solomo
makina bat heste,
Jesus jaio da eta
alaitu zaitezte.

Horra! Horra! ...

OLENTZERO

Olentzero buru handia
entendimenduz jantzia,
bart arratsean edan omen du
hamar arroko zahagia.
Ai urde tripa handia!
Tralalalala, tralalalala!
Ai urde tripa handia!
Tralalalala, tralalalala!



POZTU GAITEZEN

Poztu gaitezen, guztiok poztu
txiki, handi, zahar eta gazte,
zerutikan etorri den Haurra
degulako denok maite.

Mendiak daude elurrez zuri,
Gabonak zizkigula-etorri,
berotu gaitezen dantatuaz
mirriskiti, mirriskiti!

Astotxo baten gainean
Belengo Haurra ikustera,
arre gure astotxo, arre,
goazen azkar Belenera.

La larala la ...





TXAMARRA TXARTXO

Txamarra txartxo bat, Jauna, zuri
gorputz eder horren estalgarri, (Bis)
emango nizuke gustu handiz,
luze-laburrean ongi balitz. (Bis)

Ai, oi, gabaren on,
jaio berri hori non degun, non (Bis)
non degun, non; non degun, non;
jaio berri hori non degun non.

Laguntxoak ere baditugu
lau artzai eta bost unai gartsu: (Bis)
Pantxo, Peru eta Martin Antton,
Pantxisko, Pablo, Beltxior, Ximon. (Bis)

Ai, oi, gabaren on,
jaio berri hori non degun, non (Bis)
non degun, non; non degun, non;
jaio berri hori non degun non.



ZER ZORION TA ALAITASUN

Zer zorion ta alaitasun
gaur duguna guztiok!
Gabon eguna dugula ta,
poztu gaitezen zahar-gazteok.

Uxa ditzagun gure artetik
aurkako haserreok,
maitasun eta bake gisan
ospa ditzagun jai egunok.

Herritarrok, hemen denok:
lup! lup! lup!

Olentzero, begi gorri
nun harrapatu dek arrai hori?
Itsaspeko arroketa
bart arratseko hamaiketan.

Olentzero, olentzero,
gure jaun gidari!
Hator gugana, hator,
gurekin bizi hadi. (Bis)

Gau erdian izar eder argia,
gau erdian Belengo herrian.
Ixilik dago San Jose eta ixil-ixilik Maria.
Bere ondoan, lasto gainean,
Jesus haur jaio berria, jaio berria.

Goazen bai, goazen bai,
poz ta alaitasunez,
kale ta auzoetan zabalduz berria.
Goazen bai, goazen bai,
abesti ta dantza,
jakin zazute guztiok:
gaur da Gabon eguna!



Mila bederatzirehun
ta lehenengo urtian,
maiatzaren hamalau
garren egunian,
Orioko herriko
barraren aurrian,
balia agertu zan
beatzik aldian...



Orioko Udala
Euskara Batzordea